

KLASIKOAK GARA IKAS-EGOERA

Egilea: Susana Sancho Herrero



Leonardo.ai

Ikasmaterial honek Hezkuntza Sailaren onespena du.

Onespenaren data: 2024-04-30

AURKIBIDEA

SARRERA	4
IKAS-EGOERAREN MARKOA IRAKASLEENTZAT	6
JARDUERA-SEKUENTZIA IKASLEENTZAT	7
HASIERAKO FASEA	7
1. JARDUERA. PROIEKTUAN MURGILTZEN	7
1.1. Ikas-egoeraren aurkezpen-bideoa ikasleentzat.....	7
1.2. <i>Zu eskultore</i> dinamikaren azalpena.....	8
2. JARDUERA. EZETZ JAKINI!	9
2.1. Zer dakizue Greziako eta Erromako literaturari buruz?.....	9
2.2. Greziako eta Erromako literatura. Azalpen-bideoa.....	11
GARAPEN-FASEA	16
3. JARDUERA. ILIADA ETA ODISEA	16
3.1. <i>Iliadaren</i> mitoak.....	16
3.2. <i>Iliada</i> . Argumentua.....	19
3.3. <i>Odisea</i> . Ulisesen bidaiaren urratsak.....	22
4. JARDUERA. MITOAK	27
4.1. Mitoak, mundua azaltzeko era.....	27
4.2. Koadro biziak.....	29

4.3. Greziako mitoak. Testuartekotasuna.....	31
5. JARDUERA. GREZIAKO FILOSOFOAK	42
5.1. Platon. <i>Behinola</i> podcasta.....	44
5.2. Aristoteles. Sortu <i>Behinola</i> podcastaren 2. atala.....	47
6. JARDUERA. ERROMAKO LITERATURA	50
6.1. Apuleio.....	50
6.2. Plauto.....	52
6.3. Ovidio.....	56
APLIKAZIO-FASEA	62
7. JARDUERA. AZKEN EKOIZPENA.....	64
7.1. Azken ekoizpena neurtzeko errubrika.....	67
8. CURRICULUM-ARGUDIAKETA	69
9. ERANSKINAK	78
9.1. Taldeko lana neurtzeko errubrika.....	78
9.2. Antzezpena neurtzeko errubrika.....	79
9.3. Mitoak, mundua azaltzeko era. Kontrol-orria.....	80
9.4. Autoebaluazioa. Koadro biziak.....	81

SARRERA IRAKASLEENTZAT

Ikas-egoera hau Greziako eta Erromako literaturari buruzkoa da. Literatura Unibertsala ikasgaiko ikasleei dago zuzenduta. Modalitate-ikasgai hori batxilergoko 1. mailari dagokio. Gure lana ikasleentzako jarduera praktiko multzo bat osatzea izan da, ikasgaiaren alde teorikoa osatzeko asmoz. Hots, denetariko ariketak diseinatu ditugu, ikas-egoera formatuan antolatuak.


Egun, literatura unibertsaleko hainbat testuliburu ditugu jada, eta euskaraz, gainera! Hala ere, irakasleok askotan zailtasunak izaten ditugu ikasgelan literatura-ariketa praktikoak proposatzeko. Alde batetik, ikasgaiaren izaera zabalak denbora luzea eskatzen du, mota horretako ariketak egiteko; bestetik, irakurle gazte gehienek adorea eta pazientzia behar dute, antzinako testuei heltzeko.

Irakurle gazteei irakurtzeko prozesuan laguntzea da gure proposamena, irakurketa samurtzeko, eta, aldi berean, interesa sorrarazteko. Hasteko, literatura klasikoko zenbait testuren irakurketa izango da abiapuntua. Horrela, bada, irakurmenaz gain, ikasleek ahalik eta gaitasun gehien eskura ditzakete: idazmena, ulermena, ahozkotasuna... Izan ere, askotariko jarduerak asmatu ditugu ikasleentzat, adimen-mota guztiak lantzeko: hizkuntza-adimena, espazio-adimena, gorputz-adimena, pertsonen arteko adimena, pertsonen barne-adimena...

Zer ariketa-mota den jakiteko, honako marrazki hauek aurkituko dituzue jardueren hasieran:




Galdera-sorta, iritzia eman, alderatu, laburtu, ondorioztatu.



Informazioa bilatu, hautatu, erabili.



Dramatizatu, antzeztu.



Jolastu, jolasak sortu.



Irakurri.



Ahoz sortu.



Idatzi.



Taldeko dinamikak.

Bestalde, gogorarazi nahi dizuegu zeinen garrantzitsua den honelako ikas-egoeretan ikasleek azken ekoizpena egitea proiektuari zentzua emateko.

Interesa pizteko, lau zutabetan oinarritu gara:

1. Gaurkotasuna: antzinako literatura-pasarteak egungo interesguneekin eta pentsamenduarekin erlazionatzen saiatu gara.
2. Metodologia aktiboak: ekoizpen digitalak, mikroantzerkiak, dinamikak, gamifikazioa...
3. Sormena pizteko ekintzak: taldean idaztea, ahozko ariketak, eztabaida kritikoa...
4. Diziplinartekotasuna: artea, musika, filosofia...

Ikasleentzako jarduerak osatzeko, irakasleentzako Curriculum-argudiaketa erantsi dugu. Hor agertuko dira landutako funtsezko gaitasunak, konpetentzia zehatzak, ebaluazio-irizpideak, baita ebaluazio-tresnak ere. Horrez gain, hainbat errubrika eta kontrol-orri dituzue erabilgarri eranskinetan, ikasleen lana neurtzen laguntze aldera. Lan osoan zehar errazago mugitzeko, aurkibidea ere baduzue proiektuaren amaieran.

Besterik gabe, espero dugu goza dezazuen literatura klasikoan barna egingo duzuen ibilbidetxo honetan.

IKAS-EGOERA. KLASIKOAK GARA.

PLANTEAMENDUA

Kulturalki klasikoak garelako esan daiteke. Mendebaldean, batik bat, etengabe jotzen dugu greziarren eta erromatarren mundura, arteaz, literaturaz, historiaz... aritzen garenean. Bidaiatzea besterik ez dago, erreferentzia klasikoak nonahi ikusteko. Bestalde, gazteei, eta hain gazteak ez garenoi ere, askotan kostatzen zaigu erreferentzia klasiko bat ulertzea gaur egungo lan batean.

Jakina da gazte guztiak irakurtzen dituztela eleberriak, saiakerak, ipuinak... Baina, badira gai Seneka, Homero, Plauto... irakurtzeko? Gazte gehienak ez. Ez, behintzat, literaturaren unibertsioan laguntzarik gabe sartzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Proiektuaren bidez, ikasleek literatura greziarren eta latindarraren hainbat lanetako pasarteak ezagutzeko aukera izango dute, eta, nahi izanez gero, liburu osoak irakurtzeko. Hori guztia praktikaren bidez egingo dugu: ariketak eta jarduerak, ikasleen parte-hartzea sustatzeko.

NORENTZAT

Literatura unibertsaleko ikasleentzat, eta, oro har, istorioak gustuko dituztenentzat.

ABIAPUNTUA

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak literatura klasikoak hurbildu nahi die gazteei. Horretarako, *Klasikoak gara* lehiaketarako deialdia zabaldu dute institutuetan, gazteek eduki digitalak sor ditzaten, literatura klasikoko pasarteak erreferentzia hartuta.

AZKEN EKOIZPENA

Ikasleek, taldeka, gazteentzako eduki digitala sortu beharko dute *Klasikoak gara* lehiaketarako, literatura klasikoko pasarte batean oinarrituta.



JARDUERA-SEKUENTZIA IKASLEENTZAT

HASIERAKO FASEA

1. JARDUERA. PROIEKTUAN MURGILTZEN.

Has gaitezen *Klasikoak gara* proiektuan sartzen. Jarduera honetan, bi ariketa proposatuko dizkizuegu. Lehenengoan, proiektuaren nondik norakoak azalduko ditugu bideo labur batean, egin beharrekoa entzun eta uler dezazuen. Bideo horretara jo dezakezue aplikazio-fasean zer egin behar duzuen jakiteko; bigarrenean, *Zu eskultore* dinamika duzue, ezeri ekin aurretik, talde-kohesioa lantzeko.



1.1. Ikas-egoeraren aurkezpen-bideoa ikasleentzat

[Aurkezpen-bideoa ikasleentzat](#)

Bideoaren transkripzioa



Leonardo.ai

Kaixo, gazteok:

Klasikoak gara ikas-egoera duzue aurrean. Zuen lehenengo galdera hauxe izan daiteke: Zergatik izenburu hori? Zergatik omen gara klasikoak?

Bada, klasikoak gara Greziako eta Erromako mundu klasikoa gure kulturaren oinarria delako: artean, filosofian, literaturan, zientzian...

Gure kasuan, literatura klasikoan oinarrituko gara, literatura greziarrean eta latindarrean, hain zuzen. Ziur aski, *Iliada eta Odisea* liburuez zerbait entzun duzue, edo Greziako hainbat mito landu dituzue ikasgelan noiz edo noiz. Liburu horiek marka sakona utzi dute kultura unibertsalean.

Zergatik azaltzen dizuegu hori? Literatura klasikoaz dakizuen beste gazte batzuei kontatu beharko diezuelako. Egoera honako hau da: Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailean, oso kezkatuta daude gazteok ez duzuelako irakurtzen, eta hori jakinarazi digute batxilergoko literatura-irakasleoi, ea denon artean irtenbide eraginkorren bat ematen diogun hutsune horri. Horrez gain, arte-museoetan ere, koadroak ulertzeko zailtasunak izaten dituzue askotan, mitoen eta liburu greziarren erreferentziak ezagutzen ez dituzuelako.

Hori guztia aintzat hartuta, eta zuok Literatura Unibertsaleko ikasleak zaretenez, zertxobait gehiago jakingo duzue, eta materiala (tutorialak, azalpen-bideoak, infografiak, podcast-ak...) prestatu ahal duzue Erromako eta Greziako literaturari buruz. Horretarako, *Klasikoak gara* literatura-lehiaketa antolatu du Eusko Jaurlaritzak. Materialik onena egiten duten lehiakideek irabaziko dute, eta haien lana argitaratuko dute, edozein gazteren eskura egoteko. Hala ere, hori proiektuaren aplikazio fasean zehaztuko dugu hobeto. Bertan, Eusko Jaurlaritzako lehiaketaren oinarriak eta ebaluazio-irizpideak irakurriko dituzue.

Nola prestatuko duzue materiala? Abiapuntua literatura klasikoko liburu baten pasartea izango da, eta, liburuari buruzko informazioa bildu eta egokitu ondoren, lortutako materiala formatu digitalean aurkeztu beharko duzue. Zuon materialaren hartzaileak gazteak izango dira, eta ez dute ezer jakingo literatura klasikoari buruz; beraz, era errazean eta ulergarrian azaldu beharko duzue. Hau da, testu korapilatsua edo zaila bada, erraztu beharko diezue. Ikas-egoeran zehar, jarduera praktikoak eta adibide ugari izango dituzue, lana egoki prestatzeko.

Horixe da dena, ea bidean ikasteaz gain, literaturaz gozatzen duzuen.



1.2. Zu eskultore dinamikaren azalpena.

Irakasleak hitz-zerrenda bat osatuko du ikasleen laguntzaz. Hitzek erlazioa izan behar dute greziarren edo erromatarren bizimoduarekin. Horretarako, ideia-jasa teknika erabil daiteke. Esaterako: edertasuna, garaipena, itsasgizona, merkataritza, gerrak, Zesar, inperioa, esklaboa, arranoa... Antzinate klasikoko pertsonaiak ere izan daitezke: Apolo, Afrodita, Atenea, Jupiter, Artemisa...

Kontzeptu horiek gorputzarekin, eta hitz egin gabe, adierazi beharko dituzte bikoteka. Lehenengoz, antzeztu nahi duten kontzeptua edo pertsonaia adostuko dute bikotekideek. Hori egindakoan, bat eskultorea izango da eta bestea eskultura. Horrela, eskulturarena egiten duen ikasleak utziko dio bikotekideari gorputz atalak mugi diezazkion, aukeratutako kontzeptua adierazteko. Beste ikasleek, talde handian, zer den asmatu beharko dute.

Adibidez, garaipen-kontzeptua irudikatzeke, eskultoreak besoak altzaraziko dizkio eskulturari. Horrez gain, eskultoreak aurpegiko keinuekin adieraz diezaioke poztasuna bikotekideari, berak imita dezan. Ikus irudia.



Leonardo.ai

Talde handian kontzeptua asmatutakoan, bikote berean rolak aldatuko dira, hau da, ikasle guztiek eskultorea eta eskultura izan beharko dute dinamika amaitzeko.

2. JARDUERA. EZETZ JAKINI!

Hasteko, literatura klasikoari buruz zer dakizuen neurtu ahalko duzue galdetegi batean. Google galdetegi formatuan ere badituzue galdera berberak, autoebaluazioa egiteko. Gero, entzun azalpen-bideoa. Hor, literatura greziarraren eta latindarraren zenbait egile eta lan nabarmendu ditugu. Bideoa entzun ondoren, saiatu egileak eta lanak denbora lerro batean kokatzen. Horrela, argiago izango duzue egileen eta lanen kronologia.

? 2.1. Zer dakizue Greziako eta Erromako literaturari buruz?

Erantzun honako galderari:

1. Non sortu zen Mendebaldeko literatura?

- Erroman, eta K.a. V. mendera arte hedatu zen.
- Grezian, eta greziarrek erromatarrek garaitu zituzten arte hedatu zen.
- Grezian, eta Erromak Grezia garaitu arte zabaldu zen.

2. Zer mendetan koka dezakegu literatura greziarraren hasiera?

- K.o. VIII. mendean
- K.a. VIII. mendean
- K.a. II. mendean

3. Nork idatzi zituen *Iliada* eta *Odisea* liburuak?

- Homerok
- Horaziok
- Herodotok

4. Akiles. . .

- *Odisearen* protagonista da, eta gizaki hutsaren eta jainkotiarraren erdibidean dago.
- Troiarren aurka borrokatu ondoren, Itakara itzuli zen Penelope emaztearekin.
- *Iliadaren* protagonista nagusia da, eta "oin arinekoa" izengoitia du.

5. Ezila eta Karibdis, Polifemo erraldoi begibakarra, Zirze, sirenak... zer liburutako pasarteak dira?

- *Iliadako* epopeiaren pasarteak
- *Odiseako* epopeiaren pasarteak

6. Priamo, Hector, Helena, Paris... Zer liburutako pertsonaiak dira?
- *Iliada* liburuko pertsonaiak
 - *Odisea* liburuko pertsonaiak
7. Greziako antzerkiaren sorreran...
- lurraren emankortasuna eskatzen zuen aktore batek.
 - Bakoren omenez kantatzen zuen koru batek.
 - ez zuten kantatzen, errexitatu egiten zuten.
8. Tragedien protagonistak...
- patuaren biktima bilakatzen diren gizaki arruntak dira.
 - amaiera tragikoaren bidez, zorigaitzetatik libre sentitzen diren pertsonaia xumeak dira.
 - goi-mailakoak dira (erregeak, jainkoak, heroiak...).
9. Eskilok *Prometeo kateatua* tragedia idatzi zuen. Tragedia horretan, Zeusek Prometeo zigortu zuen. Zergatik?
- Prometeok gizakiei sua lapurtu zielako.
 - Prometeok jainkoei sua lapurtu zielako.
 - Prometeo Zeus hiltzen saiatu zelako.
10. Sofoklesek *Edipo errege* tragedia idatzi zuen. Tragedia horretan...
- Edipok aita hil zuen nahita errege bihurtzeko.
 - Edipok nahi gabe hil zuen aita.
 - Edipok ama hil zuen.
11. Nork idatzi zuen *Medea* tragedia?
- Eskilok
 - Sofoklesek
 - Euripidesek
12. *Eneida* liburua...
- Virgiliok idatzi zuen, Augusto enperadorearen babesaz.
 - *Odisearen* kopia da, hitzez hitz.
 - Erromako sorrera azaltzen duen epepeia greziarra da.
13. Hauek dira *Eneidaren* protagonistak:
- Dido eta Eneas
 - Kalipso eta Eneas
 - Eneas eta Zirze
14. *Denbora ihes doa, mintzo garen artean. Bizi ezazu gaurko eguna. Harrapa ezazu, eta ez zaitez balizko biharraz fida.*
- *Carpe Diem* poema da, Homerok idatzia.
 - Poema horretan, Horaziok aholkua ematen dio emakume bati gaztetasuna goza dezan.
 - Inortaz ez fidatzeko ohartarazten die Horaziok irakurleei.
15. Ovidiok Nartziso eta Ekoren mitoa bildu zuen *Metamorfosiak* liburuan. Zertaz mintzo da mito hori?
- Mendekuaz. Nartzisok Ekori ahotsa kendu ondoren, errekan ito zuen.
 - Desamodioaren zorigaitzaz. Nartzisok ez zuen Eko maite, eta, horren ondorioz, Ekori hezurak eta ahotsa baino ez zitzaizkion geratu.
 - Magiaz. Nartziso bat-batean lore bihurtu zen.

16. Ikaro pertsonaia mitologikoak hegoak erre zituen...

- beldurtu zelako.
- eguzkitara gehiegi hurbildu zelako.
- Dedalok kendu zizkiolako.

17. Hades... da.

- lurreko jainkoa
- azpimunduko erregea
- itsasoko erregea

18. Persefone... da.

- Hadesen alaba
- Hadesen emaztea
- Demeterren ama

19. Nork hil zuen minotauroa Kretan?

- Minos erregeak
- Perseok
- Teseok

20. Ovidiok *Heroidak* liburua idatzi zuen.

- Liburuan, maitasunari buruzko aholkuak ematen dituzte hainbat emakumek.
- Liburuan, kexu agertzen dira emakumeak, senarrak urrun daudelako.
- Liburuan, Ovidiok emazteari idatzitako gutuna dago.

[Zer dakizue Greziako eta Erromako literaturari buruz? Autoebaluazio-galdetegia.](#)



2.2. Greziako eta Erromako literatura. Azalpen-bideoa.

Azalpen-bideoa.

Bideoa ikusi ondoren, kokatu denbora-lerroan azalpen-bideoan entzundako egileen izenak eta liburuak.

Bideoaren transkripzioa



Leonardo.ai

Literatura greziarra eta erromatarra Mendebaldeko literaturaren funtsezko zutabeak dira. Greziako literaturak mitologian sakontzen du, baita gizakien eta jainkoen izaeran ere.

Erromako literaturak, aldiz, Greziakoari gehiegi zor diola esan ohi da, aurreko literaturaren elementuak dituelako, baina erromatarren nortasuna eta kultura ere islatzen ditu. Bi tradizioek ondare iraunkorra utzi dute Mendebaldeko literaturan eta kulturaren.

Antzinako literatura greziarra K.a. VIII. mendean hasi zela esan dezakegu. Bi aro nagusitu ziren garai hartako literaturan, produkzio aldetik oparoenak izan zirelako: aro arkaikoa eta aro klasikoa.

Aro arkaikoa K.a. VIII. mendetik V. mendera arteko aldiari dagokio. Garai hartakoak dira *Iliada* eta *Odisea* poema epikoak. Homerok idatzi zituen bi epopeia horiek. Lehen epopeia Troiako gerrari buruzkoa da, eta Akiles heroia du protagonista. Bigarren epopeia Ulises Troiatik Itakara heldu arteko abenturaren kontakizuna da. Ez dakigu, ordea, Homero bi epopeia horien istorio eta pasadizo guztien sortzailea izan zen ala kantak batu besterik ez zuten egin.

Hauek dira Greziako epopeien ezaugarri formalak:

- Ahoz aho transmititzeko kantak ziren.
- Kontakizunen helburua giza pasioak deskribatzea zen.
- Pertsonaien izenak askotan epiteto eran agertzen ziren: Ulises "zuhurra", Helena "ederra", Akiles "oin arinekoa" ...
- Tragedien gaiak kultuak ziren. Gizartea ere bai, aristokraziari eta gizarte-maila altuko jendeari zuzenduta baitzegoen antzerkia garai hartan.
- Patuak garrantzi handia zuen.
- Amaiera zorizaiztoa zen.

Aro klasikoa (K.a. V.-IV. mendeak) aldi distiratsua eta emankorra izan zen, antzerkia sortu eta mitoak ugaritzen hasi zirelako.

Antzerkiak erlijioso batean izan zuen jatorri: ditiranboetan. Ospakizun horietan, nekazari mozorroetuek Dionisio jainkoaren omenez kantatzen zuten taldeka (koruan). Dionisio -Erromako mitologian Bako izenez ezaguna- ardoaren eta emankortasunaren jainkoa zen.

Handik gutxira, Greziako literaturaren gailurretako bat izatera iritsi zen genero dramatikoak. Bi genero dira nagusi: tragedia eta komedia, baina tragedia generoak antzezlan gehiago eman zizkion Greziako literaturari komediak baino.

Tragediaren giroa irmoa eta jaso zen. Tragedietan, gizarte-maila handiko pertsonaiak ziren protagonistak. Normalean, heroia patuaren biktima bilakatzen zen, giza pasio batek bultzatuta, eta ikusleek errukia, arrangura, pena... sentitzen zuten. Protagonistak emozionalki askatuta sentitzen zuen bere burua antzezlanaren amaieran. Askatze horri katarsi deritzo.

Garai klasikoan aurkeztu ziren ehun tragedietatik, hogeita hamabi baino ez dira guganaino iritsi. Hiru dira Greziako tragediaren maisuak: Eskilo, Sofokles eta Euripides. Eskiloren garaitik Euripidesenera, aktoreak protagonismoa hartzen hasi ziren, ordura arte koruaren presentzia baino ez zegoelako. Antzerkiaren hasieran, herritarrek taldeka antzeztzen zuten

koruan, baina pixkanaka aktoreak agertzen hasi ziren. Aktoreek espazio gehiago hartu ahala, pertsonaien nortasuna nabarmenagoa izan zen, eta, ondorioz, humanizatu egin ziren.

Bestalde, arlo filosofikoan, gizakia eztabaidaren erdigunean jarri zen. Garai klasikoan, Platon eta Aristoteles filosofo handiek sistema filosofiko bana garatu zuten.

Mundu klasiko horren gainbeherak, Aro Helenistikoari eman zion bidea (K.a. 323). Aro hartan, hiria izan zen bizitza izpiritualaren ardatza (Alexandria, Efeso, Mileto...); beraz, kultura-ondarea biltzeak interes handiagoa izan zuen literatura-lan berriak sortzeak baino.

Erroman, III. mendearen 1. erdialdean, Greziako liburuak imitatzen hasi ziren idazle latindarrak. Hala ere, hasieran aipatu bezala, epopeia, lirika eta antzerki-generoetan, Greziako ereduari jarraitu bazioten ere, izaera propioa izan zuten erromatarrek, eta literatura-lan handiak sortu zituzten.

Epika latindarraren generoan, Virgilioren *Eneida* (K.a. 19) lana da aipatzekoa. *Eneidaren* lehenengo sei kantetan, idazleak *Odisearen* ereduari jarraitu zion estu-estuan. *Eneida* Erromako sorrera mitikoari buruzko epopeia da. Kontakizunaren heroi mitikoa Eneas da. Troiako suntsipenaren ostean, familia eta hainbat troiar lagun zituela, zazpi urte eman zituen heroiak Italiara iristeko.

Komedia-generoan, Plauto da egile nagusia. Plautok herriaren gustuko lanak sortu nahi izan zituen. Horregatik, komikotasuna eta karikatura ditu baliabide nagusi, eta ez, neurri berean behintzat, pertsonaien psikologia. Plautoren komedia ezagunenak: *Soldadu harroputza* (K.a. 205), *Lapikoa eta Anfitrioi*.

Ezin dugu Ovidio ahaztu, maitasunaren poeta. Bere *Ars amandi* (maitatzeko artea, alegia) liburuan, maitasun kontuetan aditu gisa agertu zitzaigun poeta. *Metamorfosiak* (K. o. 8) liburua da, hala ere, Ovidioren lanik unibertsalena, eta 250 kondaira mitologiko bildu zituen. Prosa idatziari dagokionez ere, idazle bikainak eman zituen latinak: filosofia eta genero didaktikoetan Zizeron, historian Julio Zesar...

Latinaren bidez, Erromako zibilizazioaren eraginak bizi-bizirik iraun zuen Mendebaldeko tradizioan. Greziako zibilizazioa aitzindaria izan zen, eta erromatarrek kultura hori miretsi zuten, bereganatu egin zuten. Ondorioz, greziarren herentzia mundu osora hedatu zen. Antzinate klasikoaren oinordekoak garela esan daiteke, ondare horren gainean eraiki dugulako pentsamendua, baita literatura ere.

Bideoan aipatutako egileak eta lanak taula honetan kokatu, edo Genially aplikazioan denboralerra osa dezakezue.

GREZIAKO LITERATURA	ARO ARKAIKOA (K.a. VIII.-V. m.)	Homero: <i>Iliada</i> eta <i>Odisea</i> .
	ARO KLASIKOA (K.a. V.-IV. m.)	
	ARO HELENISTIKOA (K.a. 323)	Kultur ondarea bildu.
ERROMAKO LITERATURA	K.a. III. m.	Plauto: <i>Soldadu harroputza</i> .
	K.a. 9. u	
	K.o. 8. u	

ARO ARKAIKOA
K.a. VIII. -K.a. V. m.

Homero. Iliada eta Odisea.



Leonardo.ai

ARO KLASIKOA
K.a. V. -K.a. IV. m.



Leonardo.ai



Leonardo.ai

ARO HELENISTIKOA
K.a. 323. u.

Kultura-ondarea bildu.



Leonardo.ai

GREZIA

ERROMA

Plauto komediagilea.
Soldadu harroputza. (K.a. 205).



Flickr.com

K.a. III. m.



Leonardo.ai

K.a. 9



Flickr.com

K.o. 8



GARAPEN-FASEA

3. JARDUERA. ILIADA ETA ODISEA.

Iliada eta Odisea lan paregabeak idatzi zituen Homerok. Homero poeta itsua K.a. 850. urtearen inguruan bizi izan zen. Homerus hitzak itsu esan nahi du. Dirudienez, aedoak izan zen idazlea. Aedoek idatzi gabe konposatzen zituzten errezitatzeko poemak, lira musika-tresnaren laguntzaz. Garai hartan, aedoakitsuak omen ziren.

Lan erraldoiak dira bi liburuak: *Iliada* 15.693 bertsoz dago osatua; *Odisea*, 11.600 bertsoz. Bietan, bertsoak 24 kantutan daude banatuta. Erreferentzia-lanak direnez, garrantzitsua da lan horien argudioak ezagutzea. Horri buruzkoa izango da jarduera honen 2. ariketa, baina, lehenengo, *Iliadaren* istorioa nondik abiatu zen ezagutuko duzue, bi pasarteren bidez. Pasarte horiek ez daude *Iliadan*, baina herriko epepeietan transmititu ziren.



3.1. Irakurri testuak arretaz eta erantzun galderei:

1. pasartea: Diskordiaren sagarra

Ospakizun handietarako aitzakia ederra izan zen Peleoren eta Tetisen ezkontza. Jainko guztiak elkartu ziren, *Diskordia* (edo Eris) izan ezik: desadostasunen jainkosa. Nahi gabean ahaztu zitzaizen gonbidatzea. Edonola ere, festara gerturatu zen Eris, eta sagar bat jaurti zien han elkartuta zeudenei. Sagarra, biraka, Hera, Atenea eta Afrodita zeuden lekura iritsi zen.

Sagarrean idatzita hauxe zegoen: “ederrenarentzat”. Horrek zalantza sortu zuen: nor zen ederrena?

Hiru jainkoretako bakoitzak (Herak, Ateneak eta Afroditik) beretzat eskatu zuen sagarra, eta ez zuten onartzen beste bietako inorentzat izan zitekeenik. Beste jainkoetatik inor ez zen ausartu baten edo besteren alde egiten.

(Kondaira horrengatik, liskar edo desadostasunen bat bada “desadostasunaren sagarra” deitzen zaio).

Soluzioa aurkitzeko, *Parisengana* jo zuten, hiru jainkosek sinesten baitzuten hilkor haren zentzu onean. Harekin, Troia hiria sartzen da jokoan, Troiako printzea baitzen *Paris*.

Banan-banan, *Paris* limurtzen saiatu zen jainkosa bakoitza. Herak aberastasunak eskaini zizkion; Ateneak, berriz, gerlari gisa fama eta ospea; baina Afroditik emazte gisa emakumerik ederrena maitemintzeko aukera eman zion. Bestela ere, Afrodita, edertasunaren jainkosa izanik, hiruretatik ederrena zen berez, eta *Parisen* aburuz sagarra hari ematea zen erabakirik zentzudunena. Hera eta Atenea oso mindu ziren, eta harrezkerotik *Parisen* eta Troia hiriaren etsai sutsu bihurtu ziren.

Hortik abiatu zen Troia hiria suntsituko zuen gerla.



Fernando Morillo (Izar malkoak liburuaren irakurketa-gidatik hartua)

1. Zer esan nahi du diskordia hitzak? Hausnartu diskordia (dis-cordis) hitzaren etimologiari buruz, eta erlazionatu hitzaren egungo adierarekin.
2. Zergatik uste duzue aukeratu zuela Parisek Afrodita? Nor aukeratuko zenukete zuek, eta zergatik?
3. Sagarra desira debekatuaren sinboloa da (Biblia), baita jakintzaren eta ugalkortasunaren sinboloa ere. Diskordia jainkosak Hesperideen lorategitik hartu zuen sagarra. Sagar horiek urrezkoak ziren, baina zer dohain ematen zuten? Bilatu lorategi horri buruzko informazioa.



Jabea: www.bridgemanart.com

2. pasartea. Tetis eta Akiles.

Akiles *Iliadaren* heroia da. Tetisek, Akilesen amak, berehala jakin zuen, orakuluak esanda, semea gaztetan hilko zela. Orduan, azpimundura joan zen, Hadesi laguntza eskatzera. Hadesek esan zion Estigia aintziran murgildu behar zuela Akiles hilezkor bihurtzeko, baina, uretan sartu zuenean, orpoetako bat ez zitzaion busti, hortik heldu baitzion Tetisek. Ondorioz, Akiles zauriezin bihurtu zen, hots, gorputz osoan ezin izango zuten zauritu, orpoan izan ezik. Orpoan (ez dakigu eskuinekoa ala ezkerrekoa zen) zaurgarria zen Akiles. Paris troiarrak Akilesen ahulgunea ezagutzen zuen, eta hortxe bota zion gezia, akabatzeke asmoz.



Kondairak dio Akilesek aholkua eskatu ziola amari, Troiako gerrara joan aurretik. Tetisek bazekien Troiara joanez gero ez zela itzuliko, eta esan zion: *seme ausarta eta boteretsua zara. Jainkoek hitz egin dute, eta bi bide dituzu aukeran.* Akilesek zer nolako bideak ziren galdetu zion amari, eta hark erantzun zion bide batek loria ekarriko ziola gerran, baita goiz hiltzea ere; poema eta abestietan gogoratuko zutela beti, baina, bizitza laburra izango zuela. Amaren arabera, beste bideak bizitza luzea eta lasaia ekarriko zion, baina loriarik gabekoa. Inork ez zuen Akiles izena gogoratuko.

Hori entzutea mingarri suertatu zitzaion Akilesi, baina erantzun zion erabakia hartua zuela. Nahiago zuen gerran loria eta ospea lortu, gazte hilko balitz ere. Bizitza laburra baina bizia aukeratu zuen, inork oroituko ez zuen bizitza luzea beharrean.

Tetisek, malkoak begietan, semearen patua onartu zuen, eta jainkoek babes zezatela opa izan zion.

Wolfgang Petersen zinema zuzendariak ederto jaso zuen Brad Pitt (Akiles) eta Julie Frances Christie (Tetis) antzezleen arteko elkarrizketa hori, Troia filmaren superproduzioan (2004).



Jabea: Alex Bailey Copyrighta: ©2004 Warner Bros.

1. Akiles izango bazinate, zer erabakiko zenukete zuek? Wachowski ahizpen Matrix 1. filmean (1999), Neo protagonistak bi bideren artean erabaki behar izan zuen, eszena ezagun batean. Bilatu informazioa eszena horri buruz, eta azaldu zer nolako bideak ziren.
2. *Iliadaren* pasarte askotan, Tetis biziki saiatu zen semea heriotzatik babesten, baina, azkenean, Akilesen patua onartu zuen. Egungo ama batek izango luke Akilesen amaren jarrera berdina? Konparatu garai hartako balioak eta gureak.
3. Erabili duzue inoiz *Akilesen orpoa* esamoldea norbaiten ahulgunea adierazteko?
4. Jarri estilo zuzenean Tetisen eta Akilesen arteko elkarrizketa. Bertsio librea izan daiteke. Antzeztu elkarrizketa idatzi ostean. Ad.:

Tetis: (*Begirada itsasotik altxatu barik*). Ene seme maitea, banekien etorriko zinela (*maskorrek biltzen ari da*). Seme ausarta eta boteretsua zara. Jainkoek hitz egin dute, eta bi bide dituzu aukeran.

Akiles:



3.2. *Iliada*. Argumentua.

Troia harresi batez inguratuta zegoen hiri boteretsua zen. Priamo errege zintzoak gobernatzen zuen Hekuba emaztearekin. Priamoren eta Hekubaren semeak Paris eta Hektor ziren. Greziarrak 10 urtez ibili ziren Troia harresitua konkistatu nahian. *Iliada* liburua gerra horren azken urteko kontakizuna da, hain zuzen.

Homerok liburuan dioenez, troiarren aurka borrokatutako greziar gehienak akeoak ziren. Akeoak Peloponeson bizi ziren. Agamenon eta Menelao anaiak akeoen erregeak ziren, baina Akiles izan zen akeoen heroi nagusia, eta Printze troiarren (Paris eta Hektor) aurkako borrokan nagusitu zen. Horiez gain, jainkoek ere parte hartu zuten gerra horretan; Hera eta Atenea, esaterako, greziarren alde egon ziren. Afrodita eta Apolok, aldiz, hainbatetan lagundu zieten troiarrei gerran zehar. Gogoratu *diskordiaren sagarraren* pasartea.

Iliada izena *Iliis-etik dator*, antzina Troia hiriaren izena *Iliis* omen zelako.

Iliadaren argumentua pasartetan zatitu eta nahastu dugu. Irakurri arretaz laukietako testu zatiak eta ordena egokia bilatu. Horretarako, erreparatu koherentziari eta kohesio-elementuei. Ondoren, pasarteen izenburuak taula batean jarri dizkizuegu nahas-mahas. Testu zatiok ordenatzen saiatu aurretik, komenigarria da pasarte bakoitzari izenburu bat egokitzea. Ikus adibidea. Ariketa bukatu ostean, egiaztatu, *issuuren* estekan, izenburuak eta pasarteak bat datozen eta ordena zuzena den ala ez.

Adibidea.

1. Akilesen eta Agamenonen borroka

Krises, *Apoloren* apaiz troiarra, greziarren kanpamentura joan zen Kriseida alaba erreskatatzera, Agamenonek, greziarren erregeak, bahitu zuelako. Agamenonek ez zuen Kriseida askatu nahi, eta Apolok izurrite bat bidali zuen kanpamentura zigor gisa, erregeak txarto jokatu zuelako. Orduan, Akiles Agamenonengana joan zen Kriseida aska zezala eskatzera, baina Agamenonek esan zion Akilesek Briseida esklaboa eman beharko ziola trukean. Agamenonen soldaduak Akilesen kanpamentura joan ziren, Briseida esklaboa gatibu hartzera. Akiles biziki haserretu zen Agamenonekin, eta Troiako gerran parte ez hartzea erabaki zuen. Bestalde, Zeus ametsetan agertu zitzaion Agamenon erregeari, troiarren kontra borrokatzen jarraitu behar zuela esateko. Iragarpen-ametsa izan zen hori. Izan ere, greziarren eta troiarren arteko gerra berpiztea zen jainkoen borondatea.

Akilesek, beraz, Patrokloren heriotza mendekatu nahi zuen, eta damu zitzaion Troiako gerrara lagun mina bidali izana. Tetisek, Akilesen amak, semearen lantuak entzun zituen, eta kontsolatzen saiatu zen. Tetisek ere negar egin zuen, bazekielako semea Troiako gerran hilko zela. Patrokloren armadura Akilesena zenez, Hektorrek beretzat hartu zuen, hura hil eta gero. Hori dela eta, Tetisek Akilesentzako armadura zoragarri bat enkargatu zion Hefesto jainkoari, Hektorren kontra borrokatzeko.

Parisek ihes egin zuenez, Hektor anaiak Troiako armadaren ardura hartu behar izan zuen, greziarren kontra jotzeko. Andromaka emaztea eta semea agurtu zituen, gerrara joan aurretik. Parisen koldarkeriaz hitz egin zion emazteari, baita Troia defendatzeko betebeharrak ere. Hektorrek desafio egin zien greziarrei, eta Ajax izeneko soldadu greziararen kontra borrokatu zen, aurrez aurre. Batek ere ez zuen irabazi. Hektorrek eta Ajaxek egun osoa borrokatzen eman ostean, gau bateko tregoa adostu zuten bi gudu-bandoek.

Egun bat geroago, Greziako eta Troiako armadak borrokan hasi ziren. Hasieran, bi aldeetako gerlari askok galdu zuten bizia. Ondorioz, gerra etetea erabaki zuten bi aldeek. Jainkoek ere borroka horretan hartu zuten parte: Apolok, troiarrei lagundu zien; Herak eta Ateneak, berriz, greziarrei. Diomedes gerlari greziarra nabarmendu zen, ausardia handiz borrokatu zelako. Hain gogor jokatu zuen, non troiarren aldeko jainkoak, Apolo eta Afrodita, usatu zituen. Aterioen armadan, Pandaros gerlari troiarrak gudu-etena hautsi zuen, Menelaoren aurka gezi bat jaurtirik.

Hektor Akilesen zain zegoen, harresiaz beste aldean. Priamok, Hektorren aitak, Akiles hurbiltzen ikusi zuen, eta semeari ohartarazi zion. Hekubak, Hektorren amak, negar egin zuen, eta Akilesengana ez joateko eskatu zion Hektorri. Hektor eta Akiles, aurrez aurre, borrokatzeko prest egon zirenean, Hektorrek eskatu zion Akilesi bietako bat hilik suertatuz gero, gorpua familiari emateko. Akilesek ez zuen hitzarmena onartu nahi izan, eta esan zion lehenengoz borrokatu behar zutela. Hektorren eztarria lantzarekin zeharkatu baino lehen, txakurrek txikituko zutela esan zuen Akilesek. Hektorren emazteak senarraren heriotzaren berri izan zuenean, negarrari eman zion, seme umezurtzaren etorkizun ilunaz oso penaturik.

Menelao ez ezik, Agamenon, Ulises eta Diamedes ere zauritu zituzten troiarrak. Armadak egin zuen aurrera Hektorren gidaritzapean, greziarren kanpamentuari eraso egin arte. Greziako ontziei ere su eman zieten. Hortaz, Greziarrek ausardiaz aurre egin zieten. Troiarren indarraz jabetuta, Agamenon Greziako erregeak mezularien enbaxada bat bidali zion Akilesi, borrokara itzul zedin konbentzitzeko. Mezularien artean, Ulises (*Odisearen* heroia) zegoen. Dena den, Akilesek eskaintza errefusatu zuen, Agamenonek Briseida esklabo itzuli arren.

Akilesek, gerlari troiarren aurrerapenaz kezkatu, Patroklo lagun mina bidali zuen greziarren alde borrokatzera. Hektor printze troiarrak Akilesen lagun bat hil zuen. Patroklok (mendeku gosez) baimena eskatu zion Akilesi bere armadura troiarren kontra erabiltzeko. Akilesek baimena eman zion, baina Troia oraindik ez hartzeko agindu zion. Hala ere, Patroklok ez zion kasurik egin, eta lautada bateraino jarraitu zion troiarrei. Hor, Hektorrek Patroklo hil zuen, Akiles zelakoan. Akilesek, lagun minaren heriotzagatik amorratuta, eta Agamenonekin hitz egin ostean, gerran sartzea erabaki zuen.

Troian hasi zen liskarra. Borrokaren arrazoia Helenaren eta Parisen arteko maitasuna izan zen. Helena Menelao errege greziarrarekin zegoen ezkontuta. Helenak Espartatik Troiara ihes egin omen zuen Parisekin, eta horrek Menelao senarraren hira piztu zuen. Menelao eta Paris, Troiako printzea, borrokan hasi ziren, baina Parisek koldar jokatu zuen, eta, ikaratuta, ihes egiten saiatu zen. Bitartean, Helena ederrak dorre batetik ikusi zuen senarra eta maitalearen arteko dolua. Menelaok Paris hil behar zuen unean, Afrodita jainkosa agertu zen, Parisi eta Helenari laguntzeko, eta Paris heriotzatik libratu zuen. Troia eta Grezia gerran sartzeko zorian zeuden.

9. Patroklo eta Hektorren hiletak

Hektor hil ondoren, Akilesek hileta-elizkizunak prestatu zituen, Patrokloren omenez. Egunero, Hektorren gorpua oinetatik eskegi, eta gurdi batez, arrastaka eramaten zuten greziarrek, Patrokloren hilobiaren inguruan biraka. Jainkoak Priamoz eta Hekubaz (Hektorren ama) erruki ziren, eta Tetis bidali zuten Akilesengana, Hektorren gorpua gurasoei eman diezaien eskatzera. Priamo bera, Troiako erregea, Akilesen oinetara makurtu zen, semearen gorpuaren eske. Azkenean, Akilesek gorpua eman zion Priamori, Hektor ohore osoz lurperatzeko.

IZENBURUAK	PASARTEAK
Akilesen eta Agamenonen borroka	1
Hefestoren armadura Akilesentzat	
Hektor, troiarren buruzagia	
Troiarrak eta greziarrak borroka bizian	
Hektor hilda, Akiles hiltzailea	
Agamenonen eskaria Akilesi	

Hektor, Patrokloren hiltzailea	
Menelao eta Paris aurrez aurre	
Patroklo eta Hektorren hiletak	9

Pasarteak ordenatuta Issuun.

? 3.3. *Odisea*. Ulisesen bidaiaren urratsak.



Leonardo.ai

Odisea poema epikoa *Iliadaren* jarraipena da. Liburu hori Homerok idatzi zuen, eta bertan kontatu zituen Ulises Troiatik Itaka uhartera heldu arteko abenturak. Gerra luze baten ondoren, Troia greziarren menpe erori zen. Troiako gerra amaiturik, bizirik atera ziren greziarrak etxera itzuli ziren; guztiak, Ulises izan ezik. Heroiak 20 urte eman zituen jaioterriko Itaka uhartera heldu arte. Izan ere, jainkoek ez zuten nahi Ulises berehala itzultzea erresumara. Poseidon jainkoa haserre zegoen Ulisesekin, ziklope begi bakarra, Poseidonen semea, itsutsu zuelako; beraz, liburuan zehar, Poseidonek etengabe egingo dio traba Ulisesi itzultzeko bidaiari. Atenea, aldiz, Ulisesi laguntzen saiatuko da.

Odisea liburua *in media res* dago kontatua, hau da, tramaren erdian hasten da kontakizuna. Kontaketa lineala balitz, Ulises Troiatik atera zenean hasiko litzateke istorioa, baina ez da liburu honen kasua. Troiako gerra, baita geroko pasarteak ere, Ulisesen ahotik jakingo ditugu aurrerago (1. pertsonan), feaziarren erregeari eta alabari kontatzen zizkienean. Egitura zirkularra dela ere esan dezakegu, istorioa Itakan hasi eta bukatzen baita.

Hau da Odisearen hasieraren laburpena:

Telemakok, Ulisesen semeak, Atenearen agindu bat jaso zuen: aita bizirik zegoen, eta bila joan behar zuen. Bitartean, Penelope erregina, Ulisesen emaztea, jauregian zegoen, ezkongaez inguratuta. Ezkongai horiek Peneloperekin ezkondu nahi zuten Itaka gobernatzeko, Ulises hilda zegoelakoan. Penelopek, ordea, ez zuen haiekin ezkondu nahi, eta luzamenduetan ibiltzen zen: ez zen haietako inorekin ezkonduko, hil-jantzi bat ehuntzen bukatu arte. Penelopek Ulises bizirik zegoela sentitzen zuen, eta iruzur egiten zien ezkongaeiei. Egunean zehar ehundutakoa gauean desegiten zuen, hil-jantzia sekula ez bukatzeko.

Artean, Kalipso ninfaren jauregian agertzen zaigu Ulises. Gizon guztiak galduak zituen Troiatik bueltan, eta ez zuen Itakara itzultzerik. Orduan, Ateneak Zeusi eskatu zion Ulisesi laguntzeko, uhartetik atera zedin, eta laguntza horri esker, Ulises Feaziarren herrialdera heldu zen. Horko

erregeak eta bere alabak, Nausikak, ondo zaindu zuten Ulises, eta nor zen galdetu ziotenean, Troiatik atera zenetik bizitako abenturak kontatzen hasi zitzaizkien Ulises.

Azkenik, feaziarren laguntzaz, uhartetik Itakara abiatu zen Ulises, eskale mozorrotuta, bere gertukoen maitasuna probatzeko. Eumeo zerbitzari leialarekin elkartu zen lehenbizi, eta Telemako semearekin gero. Semeak, bidaiatik itzultzean, berehala ezagutu zuen aita, eta hirurak (aita, semea eta zerbitzaria) ezkongaiak hiltzeko estrategia prestatzen hasi ziren. Telemakok eskalea (Ulises) sartu zuen jauregian, eta Penelopek arku-lehiaketa antolatu zuen jauregian: senarraren arkuaz, aizkora baten begitik gezi bat igaroaraziko zuen gizona Peneloperekin ezkonduko zen. Ezkongaien kontrako arku-lehiaketa irabazi ondoren, Ulisesek eskale-mozorroa kendu, eta ezkongai guztiak hil zituen. Azkenik, Penelope emaztearekin elkartu zen.

Hildako ezkongaien senideek mendekua nahi zuten, baina jainkoen aginduz, Ulisesek bake-itun bat adostu zuen haiekin. Itun hori da *Odisearen* amaiera.

Hurrengo taula honetan, Ulisesen bidaiaren “geltoki” nagusiak dituzue, Homerok kontatu zituen ordenan.

Arestian aipatu dugunez, liburua *in media res* dago kontatua. Ordenatu, beraz, Ulisesek eman zituen urratsak era kronologikoan, hau da, Troiatik Itakara heldu arteko ibilbidea. Halaber, laburtu bizpahiru lerrotan toki horietan gertatutakoa. Horretarako, taula bat duzue ariketaren amaieran. Gertaeren laburpena egiteko, *Odiseari* buruzko informazioa bilatu beharko duzue Interneten. *Genially* aplikazioan egindako denbora-lerroak lagunduko dizue pasarteak era linealean antolatzen. Ikus beheko irudi hau.

Odisea liburuaren egitura. *In media res*.

Sarrera Abiapuntua: Itaka	Telemako, Ulisesen semea	1
	Kalipso	
	Ulises feaziarren uhartean	
Ulisesen kontakizuna Abiapuntua: Troia	Troiatik irten	
	Lotofagoen uhartea	
	Ziklopeen uhartea	
	Eoloren uhartea	
	Lestrigoi erraldoiak	

	Zirze sorgina	
	Infernurako jaitsiera	
	Sirenak, Eszila eta Karibdis	
	Feaziarren uhartetik Itakara	
Amaiera	Telemakok Ulises ezagutu zuen.	
Itakarantz	Arku-lehiaketa, ezkongaien kontrako mendekua	
	Penelopek Ulises ezagutu zuen.	
	Bake ituna	

Odisea liburuaren egitura. Kontaketa lineala.

Pasarteak	Gertaeren laburpena
Troiatik irten	Troia suntsiturik, ontzietara joan ziren gizonak, baina jainkoek sakabanatu zituzten. Gizon guztiak ez ziren jaioterrira itzuli.
Telemako, Ulisesen semea	

Odisea

Ulisesen urratsak



Leonardo.ai



Wikipediatik



GeniaLy



World history enciclopedia



www.etsy.com



Herman Chappuzeau Ulises y sirenas. Flickr Irudia.



Feaziarren uhartea



Pinterest



Tesgo/Press



Agora-XTEC



Woor



Ituna

4. JARDUERA. MITOAK.



4.1. Mitoak, mundua azaltzeko era.

Kultura guztietan omen daude mitoak. Munduan ulergaitza dena azaltzeko sortu ziren. Ahoz aho transmititu omen ziren, eta, gerora idatzitakoan, kulturaren parte bihurtu ziren. Sinistu edo ez, eta era askotan interpreta daitezkeen arren, Greziako mito ugari eragina izan dute gure hizkuntzan: esamoldeetan, hainbat kontzeptutan, baita testuinguru jakinetan ere. Esaterako, badakizue zergatik dauden 4 urtaro, greziarren arabera?

Persefone eta Demeterren mitoa



www.redbubble.com


Demeter nekazaritzaren eta ugalkortasunaren jainkosa zen. Persefone izeneko alaba zuen. Persefone neska alai eta ederra zen. Egun batean, landa batean loreak biltzen ari zenean, Hades jainkoak, azpimunduko jaunak, lurretik atera eta bahitu zuen Persefone, emaztetzat hartzeko.

Tristurak hartu zuen Demeter; alabaren desagertzeagatik guztiz suntsituta, mundutik erretiratu zen. Ondorioz, lurra antzu bihurtu zen, eta landareek hazteari utzi zioten. Gizaki hilkorrak, orduan, sufritzen hasi ziren, lur-fruituen faltagatik.


Azkenean, beste jainkoek esku hartu zuten, eta Hadesekin akordio bat lortu zuten. Persefone bizidunen mundura itzul zitekeen, baina urtearen zati batean baino ez. Persefone Hadesekin azpimunduan zegoenean, lurra hotz eta antzu bihurtzen zen, neguaren ikur. Amarekin itzultzen zenean, lurra loratu egiten zen, udaberriaren eta udaren etorrera iragartzeko.

Mitoak azaltzen du nola eragiten duten lurraren emankortasunean Demeterren tristurak eta pozak zein urtaroen arteko aldaketek.

Esan dugun bezala, hizkuntzan ere mitoetan oinarritutako esaldi andana ditugu. Ezagutzen dituzue hurrengo mito hauek? Irakurri esamoldeak, eta ikertu zergatik erabiltzen diren eta zer esan nahi duten. Horretarako, mitoaren istorioa bilatu beharko duzue, noski. Azaldu istorio hori ere taulan, labur-labur.

Adibidea	Mitoak	Esanahia	Azalpena	Irudia
Batxilergoa bukatzea <i>odisea bat</i> izan zen.	<i>Odisea</i> liburua	Zerbait oso neketsua, edo oztopoz betetako bidea	Ulisesek 20 urte eman zituen Itakatik alde egin zuenetik Itakara itzuli arte. Oztopo ugari gainditu behar izan zituen.	 www.flickr.com
Une horretan <i>Kupidoren gezia</i> nabaritu nuen bihotzean.				
Politikari horren hitzak <i>sirena-kantuak</i> baino ez dira.	Sirenen kantua	Limurtzailea, tentagarria, baina ez benetakoa		 www.genial-ly.com
Lurrikararen dardara sentitzean, izu-ikarak hartu ninduen.	Pan jainkoa. Gaztelaniako <i>pánico</i> hitza hortik dator.	Beldur kontrolaezina	Pan Greziako mitologiako jainkoa zen, eta natura eta bizitza basatia irudikatzen zituen. Erdi gizona eta erdi ahuntza zen, adarrak eta ahuntz-hankak zituen. Artzainen eta artaldeen jainkoa zen, baita musikaren eta dantzaren jainkoa ere. Bere irudia izuarekin dago lotuta, basoetan eta leku urrunetan beldurra sortzen omen zuelako.	 <i>Leonardo.ai</i>
Hobe <i>Pandoraren kutxa</i> ez zabaltzea.	Pandoraren kutxa		Zeusek Prometeoari gorroto zion, hilkorrei sua emateagatik. Bere anaia Epimeteori Esan zion Pandora izeneko emakume batekin elkartzeko, eta kutxa bat oparitu zion. Zeusek debekatu zuen kutxa zabaltzea, baina Pandorak jakingurari ezin eutsi, eta ireki zuen. Ondorioz, hainbat gaitz (gosea, gaixotasunak...) hedatzen hasi ziren Lurrari. Pandorak, ikaratuta, kutxa itxi zuen, eta, zorionez, itxaropena kutxaren barruan geratu zen. Horregatik esaten da itxaropena galtzen den azkena dela.	 <i>Leonardo.ai</i>

<p><i>Edipo konplexua</i> du mutil horrek.</p>	<p>Ediporen mitoa</p>	<p>Semeak amarekin duen gehiegizko lotura</p>	<p>Orakuluak esan zion Tebaseko erregeari, Laiori, Edipo semeak hilko zuela; horregatik, Laiok eta Yokastak, Ediporen gurasoek, Edipo abandonatu zuten, eta beste guraso batzuekin hazi zen, baina, hala ere, orakuluaren iragarpena bete zen: Edipok Laio hil zuen liskar batean, aita zela jakin gabe; eta hainbat oztopo gainditu ostean, Yokasta erreginarekin ezkondu zen, ama zela jakin gabe. Semearekin ezkondu zela jakin zuenean, Yokastak bere buruaz beste egin zuen.</p>	
--	-----------------------	---	---	--



4.2. Koadro bizien dinamikaren azalpena.

Dinamika honetan, mitoen koadroetan (ikus beheko aukerak) dauden pertsonen larruan jarri beharko duzue: haiek bezala pentsatu, sentitu, hitz egin... Horretarako, koadroetako pertsonen biografiari buruzko informazioa topatu beharko duzue lehenengoz. Gogoratu mitoz ari garela; beraz, mitoaren istorioa ikertu beharko duzue, ezer baino lehen. Ondoren, pertsonaia ondo karakterizatuta duzue, bakarrizketa bat idatzi beharko duzue 1. pertsonan, luzea izan barik, gero antzeztu ahal izateko. Aske sentitu bakarrizketa asmatzeko, baina, bakarrizketa idatzi aurretik, saiatu aztertzen garai hartako pertsonen pentsamendua, baloreak, jarrerak, maila soziala, besteak beste.

Testua barneratu ondoren, koadroak bizia hartuko du, eta koadroaren pertsonaren gorputz-jarrera bera jarri, bakarrizketa eran hitz egiten hasiko zarete, pertsona hori izango bazinate bezala. Irakurmenari baino, antzezpenari erreparatuko diogu, batik bat.

Adibidea. (Ikus behean *Medea haserre* koadroa).

Informazioa

Euripidesek *Medea* tragedia idatzi zuen. Medeak, jelosiak jota, seme-alabak hil zituen, Jason senarra Kreusa printzesarekin maitemindu zenean. Kreusa pozoitzeaz gain, seme-alabak hil zituen Medeak, Jasonen kontrako mendekua hartzeko.

Bakarrizketa

Irakurri beheko pasartea. Medea bere buruarekin ari da. Seme-alabak hiltzeko adorea bila dabil, hilketak higuigarria zuritu nahian. Medeak koadroan dituen pentsamenduak eta nahiak irudika litzake bakarrizketak. *Medea* Euripidesen tragediatik hartutako zati bat da, euskarara ekarria. Hortik hizkuntzaren forma jaso.

Medea: Adiskideok, erabakirik dut nere egitekoa: lehenbailehen nere haurrak hil egingo ditut, lurralde honetatik urrun nadin, eta nere alferkeria dala-ta beste esku gorriagoek hil ditzaten zorian nere haurrak utz ez ditzadan. Hil daitezen beharrezkoa da erabat: eta noraezekoa denez gero, hil ere geuk, sortu genituenok, hilko ditugu. Hots, jantzi iskiloak, bihotz! Zer dala-ta luzatzen dugu makur lazgarri ta noraezekoak egitea? Eup! Har ezazu ene esku gaixo honek ezpata, har ezazu! Zoaz biziaren jomuga negargarria barna! eta ez zaitetz beldurti izan, ezta ez zaitetz semeez oroi ere, laztanen dituzula-ta, sortu dituzula-ta. Ahaztu zaitetz egun labur honetan zure seme ezaz eta negar egin gero. Hain zuzen, horiek hil bazenitza, orobat laztan izango lirateke, nerau ordea emakumerik zoritxarrekoen. (*Badoa etxe barnera.*)

itzul.: Zaitegi eta Plazao'tar Iokin

Egan, 1963

Beheko koadro hauetatik bat aukeratu zuen lanerako.



Fedra. Alexandre cabanel. *Wikipediatik.*



Medea haserre. Eugene Delacroix. *Wikipediatik.*



Edipo eta Esfingea. *Gustave Moreau. HA!*



Elektra Agamenonen hilobiaren aurrean. Frederic Leighton. *Decorar con arte-tik.*

Idatzi hemen bakarriketa



4.3. Greziako mitoak. Testuartekotasuna.

Erreparatu aurreko ariketari. Uler liteke Medearen edo Ediporen koadroa bi mitoen istorioa ezagutu gabe?

Ezinezkoa, ezta? Kasu horretan, hobeto interpretatuko dugu mundua margolaritza eta literatura erlazonaturik. Ideia hori literatura arlora mugatzen badugu, ondorio bera aterako genuke. Garrantzitsua da literatura-lan nagusiak ezagutzea, beste testuinguru batean agertuz gero, ondo interpretatzeko. Sarritan, testu batean, beste testu bateko erreferentziak agertzen dira. Horri testuartekotasun deritzo. Askotan, erreferentzia testualak dira (aipamenak), baina, gehienetan, irakurleek ulertu, eta testuinguru berrian duten esanahia interpretatu behar dute. 4.3. jarduera honetan, 6 testu proposatuko dizkizuegu, Greziako literaturaren erreferentziak aztertu eta alderatzeko.

Esaterako, *Odisearen* argumentua ezagutu ezean, nekez uler genezake Kavafisen Itaka poema hau. Irakur ezazue ea zer ulertzen duzuen.

1. testua

ITHAKA (1911)



Wikipediatik

Ithakara itzultzeko bidaiari abiatzen zarenean,
egizu otoitz bidea luze izan dadin,
menturez betea, ezagutzez betea.
Lestrygonei eta Zyklopeeiei,
eta Poseidon hiratuari ez iezaezu beldur izan,
horrelakorik ez duzu zeure bidean inoiz aurkituko,
zure pentsamenduak gora badirau, baldin eta zirrara
fin batek zure izpiritua eta zure gorputza ukitzen baditu.
Lestrygonak, Zyklopeak,
Poseidon hiratua ez dituzu aurpegiratuko,
zeure ariman ez badiezu abaro ematen,
zure arimak ez baditu jartzen zure aurrean.

Egizu otoitz bidea luze izan dadin.

Anitz udagoiz izan dadin,
 zeinetan zein plazerrez, zein zorientasunez
 helduko baitzara alde zurretik amesturiko portuetara;
 geldi zaitetz merkatu feniziarretan,
 eta merkantzia ederretarik egizu pilakera,
 perlak eta koralak, anbare eta ebanoak,
 eta lurrin laketgarri era guztietakoak,
 ahal duzun gehiena lurrin laketgarrietarik;
 hiri egipziar askotara joan zaitetz,
 ikasteko eta ikasteko dakitenengandik.

Zeure adimenduan ukan ezazu Ithaka beti.
 Horrainoko etorrera da zure jomuga.
 Baina ez ezazu presaka zeure bidaia bat ere.
 Hobe da anitz urte eder dirauela;
 era behin zaharturik ja irlara heltzea,
 bidean irabazitako guztiarekin aberats,
 espero gabe Ithakak aberastasunik ematea.
 Ithakak bidaia eder bat eman zizun.
 Bera gabe ez zinatekeen abiatu.
 Baina ez dauka deus besterik zuri emateko.
 Era pobrea edireten baduzu, Ithakak ez zintuen engainatu.
 Bilakatu zaren jakintsua, hainbeste esperientziarekin
 ulertu dukezu Ithakak zer erran nahi duten.

© K.P. Kavafis
 © itzulpenarena: Andolin Eguzkitza / Olga Omatos

www.susa-literatura.eus

Kavafisen Ithaka olerkiaren interpretazioa

1911. urtean, Kavafisen *Ithaka* poema argitaratu zen. Olerkiak Ulisesek *Odisean* egindako etxerako bidaia du oinarri. Dena den, esanahi sakoneko poema dugu hau. Izan ere, interpretazio ugari egin daitezke, esaterako, Itaka uhartetzat baino, kontzeptutzat ulertuz. Ulisesen Itaka Greziako uharte txiki bat da, itsaso Jonikoan kokatua.

2. eta 3. ahapaldietako interpretazio kritikoa egin. 1. ahapaldiaren interpretazioa duzue adibide gisa.

<p>1. ahapaldia Itakara itzultzeko (...) zure aurrean.</p>	<p>Lehenengo ahapaldian ikus dezakegu norbaiti zuzentzen ari zaiola idazlea <i>"Ithakara itzultzeko bidaiari abiatzen zarenean"</i>. Norbait hori Ulises izan daiteke, zentzu literal batean, edota bidaia bat egiten ari den edonor. Kavafisen ahots narratiboak gertakariz betea izatea desira dezala gomendatzen dio</p>
---	--

	<p>Ulisesi, horrek eskarmentua emango diolakoan. Gero, izan ditzakeen beldurrez mintzatzen da, baina, betiere, haien kontra borrokatu behar duela esateko. Kavafisek ulertarazten du jarreraren arabera izango dela bidaia; hau da, bidaiariak abenturak bizi nahi baditu, horretarako gogoia izan behar du. Lerro artean, arriskatu behar duela dio. Aipatutako pertsonaiak “<i>Lestrygonei eta Zyklopeei eta Poseidon</i>” <i>Odisean</i> agertzen dira: lestrigoiak (erraldoi gizajaleak), ziklopeak (begi bakarreko erraldoiak, eta Poseidon (Ulisesi bidaia eragozten dion jainkoa).</p>
<p>2. ahapaldia Egizue otoitz ...) dakitenengandik.</p>	
<p>3. ahapaldia Zure adimenduan (...) erran nahi duten.</p>	

Dakizuenez, Homeroren *Odisean*, Ulisesen balentriak ez ezik, maitasun istorio bat ere agertzen da. Penelopek 20 urtez itxaron zion Ulisesi. Orakuluak esan zion ezkondu beharko zuela ehuntzen ari zen oihala bukatutakoan. Beraz, egunean zehar ehundutakoa desegiten zuen gauean, Ulises senarra etxera itzuliko zelakoan. Hori dela eta, Penelope fideltasun ikurtzat hartu ohi da kultura unibertsalean. Ulisesen kasuan, aldiz, ez dira gutxi *Odisean* zehar izan zituen emakumeak, Itakara Peneloperekin itzuli nahi zuela beti adierazi arren.

Augusto Monterrosok mitoari buelta eman zion, ordea. Irakurri testua, eta erantzun galderari. Audioan ere entzuteko aukera duzu.

2. testua

PENELOPEREN OIHALA EDO NORK NORI EGITEN DION IRUZUR

Antzina bazen Grezian Ulises izeneko gizon bat (jakintsu samarra izan arren oso sotila bera), Peneloperekin ezkondua, berau emazte eder eta dohaintsua, zeinaren akats bakarra oihalgintzarako zaletasun larregizkoa baitzen; ohitura honi esker, denboraldi luzeak eman ahal izaten zituen bakardadean.

Kondairak dioenez, Ulisesek, bere zuhurtasunez, emaztea, bere debekuei axolagabe, oihal bukaezinezko horietako bat hastear zegoela ikusten zuen bakoitzean, gaez ikus zitekeen gizona ezkutuan botak eta txalupa ederra prestatzen, gero emazteari ezer ere esan gabe mundua zeharkatzera eta bere buruaren bila abiatzeko.

Honela, emazteak senarra urrun mantentzea lortzen zuen bera amoranteekin lausengukerietan aritzen zen bitartean, berauei sinetsaraziz oihalgintzan aritzen zela Ulisesek bidaiatzen zuen bitartean eta ez Ulisesek bidaiatu bera oihalgintzan aritzen zen bitartean, Homerok imajinatu ahal izan zuen modura zeren, jakina denez, batzuetan lokartu eta ezertaz ere ohartzan ez baitzen.

*Egilea: Augusto Monterroso
Itzulpena: Gerardo Markuleta*

www.ekarriak.armiama.eus/

<https://etxegiroan.eus/eu/audioak/literatura-euskaraz/peneloperen-oihala-edo>

1. Nolakoa da Ulises Monterrosoren testuan? Gaztea, aktiboa, erakargarria..., *Odisean* bezala?
2. Penelope fidela, zintzoa eta otzana da ala zoroa, abenturazalea eta bizizalea?
3. Nolako harreman dute testuan Ulisesek eta Penelopek?
4. Ulisesengandik askatzea da Peneloperen helburua, maite-jolasean ibiltzeko?
5. Peneloperi espazioa ematea da Ulisesen helburua?

Odiseako mitoen testuartekotasunaz ari garenez, J. Sarrionandiaren hurrengo testu hau aztertuko dugu: *Ulyses Itakara heltzean*.

Odisean, Itakara itzultzen denean, Ulisesek topatzen duen lehenengo pertsona Eumeo morroi fidela da. Ulises eskale mozorrotu zen jaioterrira itzultzean, oraindik gogoratzen zuten egiaztatzeko. Ikertu nolako enkontrua izan zuten Eumeok eta Ulisesek *Odisea* liburuan, eta alderatu Sarrionandiak egindako berrinterpretazioarekin. Testuaren osteko galderek lagunduko dizuete.

3. testua

ULYSES ITACARA HELTZEAN



www.etsy.com

Iristen ari zara, Ulyses, Itacara,
eta irrika behatzen duzu etxera.
Baina ba al dakizu zer kausituko duzun?
Neuk, Eumeo honek, esango dizut.
Bada begira zure etxe ohiko bozkarioa.
Zure haiduru direla esan al dizute?
Begira itzazu itsasontziak haretan zurkaiztuak
eta jauregiko leihoetako arno eta urdai usaina.
Begira zer ukanen duzun etxera itzultzean:
aitorensemeen ospea, ator usaingozotuak,
eguneroko izen eta abots berberak,
ahaide eta oinordekoen laztan eztitsuak,
baratxuri, garagar irina eta arno ureztatua.
Eta ilea urdinduz aitona bihurtu,
esku ahurreko marrak ezabatzerakoan hiltzeko.
Zergatik itzuli Itacara, Ulyses?
Saiak soilik geratzen dira aspaldidanik etxe honetan,
gida harria besterik ez da hegazti galduentzat.
Akiturik al zara? Laket al zaizkizu hiletarien malkoak?
Egiozu kasu izarren bideari, hegaztiek bezala,
eta bizitzaz bederen badakien Eumeo zahar honi.

Joseba Sarrionandia. Izuen gordelekuetan barrena. 1981.
www.armiarma.eus.

Hiztegia

Kausitu = aurkitu

bozkario = poza

Zure aiduru = zure zain

Akiturik = nekaturik

Saia = putrea

1. Zer aurkituko du Ulisesek etxean, Eumeoren arabera?
2. Ulisesen zain egon dira Itakan?
3. Zer esan nahi dio Eumeok Ulisesi, itzuleran betiko ahotsak entzungo dituela esan dionean?

4. Nor dira oinordekoak edo ezkongaiak? *Odisean* ere agertzen dira?
5. *Odisean*, “saiak” baino ez dira geratzen jauregira itzultzean? Alderatu pasarte hori Sarrionandiaren testuan eta *Odisean*.

Greziako mito ezagunenetako batez arituko gara orain: Kupidoaren mitoaz.

Kupidok, edo Erosek, maitasun eternoa eta saihetsezina sinbolizatzen du: bat-bateko maitemina. Lehen begi-kolpeko maitasuna adierazteko erabili ohi dugu Kupidoren irudia, arkuak eskuan, gezia jaurtitzeko prest. Irudi hori amutzat ere hartzen dute saltzaileek, egun jakinetan. Baina, badakizue nor zen Psike? Ezagutzen duzue Kupido eta Psikereren mitoa?

Hona hemen Kupido eta Psikereren istorioa labur-labur. Irakurri ondoren, saiatu interpretatzen istorioaren ostean duzuen poesia. Horretarako, baldere erantzun beharko diezue.



Kupido eta Psike. Antonio Canova. Wikipediatik.

Psike pertsonaia mitologikoak giza arimaren edertasuna sinbolizatzen du. Apuleioren *Metamorfosis* liburuan agertzen denez, Psike neska hilkorra oso ederra zen. Horregatik, Afrodita, edertasunaren jainkosak, gorroto zion, eta Kupido semeari gezi bat jaurtitzeko esan zion. Gezi horrek gizon itsusi batekin maiteminaraziko zuen Psike. Aitzitik, Kupidok neska ikusi bezain laster, erabat maitemindu zen, eta gezia ibaira bota zuen.

Afrodita, semearen maitemintze sutsuaz jabeturik, elkartzeko baimena eman zien, baina baldintza batekin: Psikek ezin izango zuen Kupidoren identitatea jakin. Beraz, Kupidok eta Psikek elkar maitatzen zutenean, Kupidok une oro zuen aurpegia estalita.

Egun batean, Psikereren ahizpek konbentzitu zuten gauaren erdian lanpara bat piztu, eta maitalearen aurpegia ikusteko. Ahizpek esan zioten Kupido munstro bat izan zitekeela, ez baitzegoen beste azalpenik bere nortasuna ezkutuan mantentzeko.

Gau batean, Psikek, ahizpen hitzen eraginpean, lanpara bat bilatu eta piztea erabaki zuen, senarraren aurpegia ikusi ahal izateko. Orduan, olio tanta bat erori zen lanparatik, lo zegoen Kupidoren aurpegira. Une horretan esnatu, eta desagertu egin zen.

Psike akatsaz konturatu zenean, Afroditari laguntza eskatu zion, Kupidoren maitasuna berreskuratzeke, baina Afrodita lau zeregin bete zitzaion agindu zion, edozein hilkorrenzat ia beteezinak. Hala ere, Psikek proba guztiak gainditu zituen, azkena izan ezik.

Azpimunduan, Persefonek kutxa bat eman zion. Kutxa horretan edertasuna zegoen, eta debekatu zion irekitzea, baina, berriro ere jakingurari ezin eutsirik, zabaldu egin zuen. Une hartan, lo sakonean sartu zen Psike. Kupido, Psikereren faltagatik etsita, ihes egin zuen amaren jauregitik, eta Psike aurkitu zuenean, gezi batez esnatu zuen. Azkenean, Zeusek bikotearen alde egin zuenez, Afrodita gazteen maitasuna onartu zuen, eta Kupido eta Psike zoriontsu bizi ziren, elkarrekin betiko.

4. testua

Kupidoren aitzakiak



Euritako bakarra, espero ez dugun ekaitza lehertzen denean.

Betile bat begiaren bazter batean itsatsita.

Irakasleek taldeka lan egiteko duten mania.

Zinemako eserlekuko besoa partekatu beharra.

Igerilekuan zure burua urpean sartzea.

Dantza-talde batean apuntatzea.

Kontsolamendua eskatzen duten malkoak.

Estropezu eta talka kasualak.

Udako erromerien kate-dantza.

Bizikletako gurpil zulatua.

Baso batean galtzea.

Hoztuta eta gauean, baso batean galtzea.

Dantzalekuen txoko ilunak.

Penak eta porrotak aitortzea.

Jolas-parkeko norian sentitu dugun bertigoa.

Itzuli behar didazun liburua.

Udako gau bat izar azpian, belardi batean etzanda.

Izozki arrasto bat zure ezpainetan...

Kupido bere geziaz suizidatuko litzateke instagramen *Punto*,
y si me lío esaldia irakurriko balu.

Desioen maskara. Susana Sancho.

Maitemintzeko egoera ugari aurkezten dira testuan. Taldeka bildu, irakurri *kupidoren aitzakiak* olerkia, eta erantzun galderei:

1. Maitemintzeko egoera horiek errealak dira ala egungo gazteak ez lirateke horrela maitemintzeko?
2. Horietako egoeraren batean egon zarete? Bestela, nola nahiko zenukete elkartzea gustuko pertsona batekin?
3. Testuaren arabera, zergatik suizidatuko litzateke Cupido?

Ezin dugu ahaztu, Literatura Unibertsalean, askotan aipatzen den mito zabalduenetako bat: Kretako minotauroaren mitoa. Mito horrek literaturan ez ezik, Greziako historian ere badu oinarria, Minos Kretako benetako erregea izan baitzen, aro minoikoan.

Honako testu honetan, minotauroaren mitoaren laburpena duzue. Hitz batzuk kendu ditugu, ordea. Erantzun zuzenak ikusteko, *educaplay* aplikazioan egin beharko duzue ariketa. Ikus *educaplay* esteka beheerago.



Minotauroa. George Frederick Watts. Wikipediatik.

Kretako Minos erregeak ez zuen bete agindu bat: Poseidonek zezen zuri bat irtenarazi zuen itsasotik, eta Minosek sakrifikatu behar zuen, haren omenez eskaintzeko, baina Minosek, zezenaren edertasuna ikusita, bizirik mantendu zuen. Poseidon, haserre bizian, Pasifae, Minosen emaztea, zezen zuriaz zuen, eta Minotauroarekin elkartu zen Pasifae. Sexu-elkarketa horretatik minotauroa jaio zen. Minotauroak giza gorputza eta zezen-burua zituen, eta Kretako biztanleak jaten zituen, gosea .

Minosek Dedalo agindu zion labirinto bat eraikitzeko, minotauroa bizi zedin. Dedaloren labirintoa berezia zen: inor ezin zen handik bizirik atera, irteera aurkitzea ezinezkoa .

Bestalde, Kretaren eta Atenasen arteko liskarrak gero eta handiagoak ziren, Minos erregearen semea, Androgeno, Atenaseko joko olinpikoetan hil zutelako. Minosek, orduan, zigor bat ezarri zien atenastarrei, semearen hilketara ordaintzeko: noizean behin, Egeok, Atenasko erregeak, bizpahiru biztanle eman behar zizkion Minosi, minotauroa elikatzeko.

Teseok, Egeo erregearen semeak, horiengatik haserre, bere burua eskaini zuen Kretara joateko, minotauroarekin borrokatzera. Egeo aitak ezin izan zuen gelditu; eta, joan baino lehen, esan zion minotauroari irabaziz gero, itzulerako bidaiari, zuriak altxatzeko itsasontzian. Teseo labirintoan sartu zen, eta, gogor borrokatu ondoren, minotauroa hil zuen. Gainera, labirintotik salbu ateratzea lortu zuen, Minosen erregearen alabari esker. Ariadna izena zuen alabak, eta hari bat eman zion Teseori, labirintoaren irteera aurkitzeko. Teseo, garaipenagatik pozik, laster abiatu zen Atenaserantz, baina itsasontziaren oihal zuriak altxatzea ahaztu zuen, aitari agindu zion bezala. Egeok itsasontziaren oihal beltzak ikusita, semea hilda zuela pentsatu zuen, eta itsasora bota zuen bere burua. Kondairaren arabera, itsasoaren izena hortik dator, Egeo itsaso horretan ito zelako.

Minotauroaren hilketak, eta Teseoren ihesak, Minosen haserre piztu zuten. Ondorioz, Dedalo arkitektoa itxi zuen labirintoan gisa, baina Dedalok ihes egiteko plan bat pentsatu zuen: Minosen omenez artelan bat egingo zuela esan zion , eta argizaria, eta lumak ekartzeko eskatu zuen. Material horiekin, Dedalok hegala egin zituen bere buruarentzat, eta Ikaro semearentzat, labirintotik ihes egiteko modu bakarra hegan egitea baitzen. Pazientzia handiz, hegoei forma eman zion. Prest zeudenean, eta ihes egiterakoan, Ikarori zion ez zuela oso baxu hegan egin behar, hegoek itsasoaren kontra jo

zezaketelako. Eguzkitik oso hurbil ere ezin zuen hegan egin, _____ hegoak urtu egin . Airean zegoela, esan zion ezin ziola besoak mugitzeari utzi.

Ikaro eta Dedalo horrelaxe atera ziren hegan labirintotik. Bientzat sentsazio zoragarria izan zen; hainbestearino, non Ikarok, bat-batean, hobeto ikusi nahi izan _____ ingurua. Horregatik, gorago igotzea erabaki zuen, aitaren aholkua ahaztuta. Hainbeste hurbildu zitzaion eguzkiari, ezen hegoak urtu egin _____. Itsasora erori, eta hil egin zen.

Dedalo Siziliara joan zen hegan, eta han babesturik bizi izan zen, hil arte. Semea uharte txiki batean _____ zuen. Egun, Egeo itsasoko Ikaria uhartea da hori.



https://es.educaplay.com/recursos-educativos/16626755-minotauroaren_mitoa.html

Minotauroaren mitoa irakurri eta gero, hobeto ulertuko duzue jarraian duzuen *Ikaro* testuaren esanahia. Irakurritakoan, erantzun *Ikaro* testuari buruzko galderei. Audioan ere entzun dezakezue testua.

5. testua

Ikaro

Ikaratuta nago, aita. Kretako labirintoan baino galduago. Haririk gabe, minotauroaren aurrean. Baina nori axola zaio orain?



Hegorik gabeko jendea kaskartzat zenuen, aita. Ez ikartzeko esaten zenidan, gora jotzeko, handikiro pentsatzeko, hegoak zabaltzeko...

Eta nik zu bezalakoa izan nahi nuen: hiriko arkitektozik ospetsuena, kostaldeko etxerik zurienean bizi zen aberats berria, ederra, arrakastatsua...

Zure izen onaz baliaturik, dena etorri zen jarraian: bulegoa, etxea, ospea, familia...

Eta bidaiak, jaiak, drogak, iruzurra, depresioa, zorrak...

Hegoak eman zenizkidan, aita, baina ez zenidan esan, Dedalok Ikarori bezala, eguzkiak erre nintzakeela.

Esan txarreko Ikaroren erorikoaz askotan pentsatzen dut, aita. Hark, nik bezala, aitaren hegoak erabili zituen. Ez zuen altxatzerik izan.

Ni orain hegoak noiz aterako zain nago. Eta ikaratuta nago, aita.

Desioen maskara. Susana Sancho.

Testu bera bideoan. [Ikaro. Desioen maskara liburutik. Ahotsa: Fernando Morillo.](#)

1. *Ikaro* testuan, zer esaten zion aitak semeari?
2. Zer nahi zuen semeak hasieran? Lortu zuen desiratzen zuena?
3. Zer gertatu zitzaion semeari? Zer egin zuten txarto aitak eta semeak?
4. Interpretatu amaiera. Zer esan nahi du semeak, zuen ustez, berak Ikarok bezala, aitaren hegoak erabili zituela dionean? Zer gertatu zitzaion seme biei? Zergatik dago ikaratuta?

Testuartekotasuna lantzeko ariketei amaiera emateko, 6. testua proposatuko dizuegu, mitoen erreferentziak ulertzeko. Testua irakurri, (edo bideoa ikusi), eta erantzun galderari.

6. testua



ITXAROPENA

Eta orduan gaitz guztiak munduan zehar barreiatu ziren; itxaropena kutxa barruan geratu zen, ordea.

Leonardo.ai

Baietz esan zenidan, eta Zeusi eskertu nion, emandako oparia ezin sinetsirik. Zu Afrodita bezain ederra zinen, ni Hefesto bezain baldarra.

Zure distirak Olinpoko jainko egiten ninduen.

Bihotzak amiltzen ziren zure begiradapean.

Lurra dardarka jartzen zenuen instiko pasabideetan igarotze soilarekin.

Emozioetan nerabe samurra ni, maitasun arteetan gazte trebea zu.

Prometeoren sua zen gurea, ni zure sua lapurtzen saiatu nintzen arte.

Grezierako klasean izan zen, bioi horrenbeste gustatzen zitzaigun hartan.

—Jainko-jainkosen poligamiarekin bukatu behar dugu guk biok —nik, barrez.

—Probatuko?

Zuk muxu azkarra eman zenidan. Nik bikotea ginela ulertu nuen.

Irakaslea Pandoraren mitoa azaltzen ari zen.

Hurrengo astean benetako erantzuna aurrez topa nuen, institutuko mutil ederrenaren besoetan ikusi zintudanean.

Jakingura zenuela esan zenidan, barkatzeko.

Baina Pandoraren kutxa ireki zenuen, eta geroztik mundua ez dut hain eder ikusten. Itxaroteko esan nizun.

Mina noiz igaroko nago orain, itxaropena lagun.

Desioen maskara. Susana Sancho.

Testu bera bideoan. [Itxaropena. Desioen maskara. Ahotza: Larraitz García.](#)

1. Aipatu testuan agertzen diren mitoak.
2. Zer alde daude protagonisten artean, nortasunari dagokionez?
3. Zergatik esaten dio mutilak Pandoraren kutxa ireki duela?
4. Nola dago amaieran bien arteko harremana?

5. JARDUERA. GREZIAKO FILOSOFOAK.



Ikas-egoera honetan literatura klasikoaz badihardugu ere, antzinate klasikoko Platonen eta Aristotelesen teoria filosofikoak nabarmendu nahiko genituzke, filosofia modernoaren oinarriak finkatu zituztelako.

Proiektuaren helburua gazteentzako eduki digitalak sortzea denez, podcast formatuan egitea eskatuko dizuegu, euskarri egokia baita, filosofo horien biografia eta pentsamendua era errazean ezagutarazteko.

Ziur aski, podcast formatua ezagutuko duzue. Infografia honetan dituzue podcast bat sortzeko jarraitu beharreko urratsak.

PODCAST-EN EZAUGARRIAK



Eguno gai bati buruzko programa da, audio digital formatuan, sarean maiztasunez argitaratzeko sortua. Bakarrizketak, elkarrizketak... egon daitezke.

GAI BATI BURUZKOAK



Gai zehatzen ingurukoak. Gai horietan interesatuei zuzenduak.

ATALAK



Edukia ataletan dago banatua. Podcast-en gai orokorrari buruzko azpigaiak.

ANFITROIA



Normalean anfitrioi bat edo programa zuzentzaile bat dago. Podcasterrak dira.

•REC

MAIZTASUNA

Atal bakoitza denbora tarte jakin batean argitaratu behar da, entzulearen jakinmina asetzeko.

EROSOTASUNA



Irratiaren bertsio modernoa da. Informazioa edonon kontsumi daiteke, baina pantailari begiratu gabe.

EGITURA ARGIA



-Gaiaren aurkezpena
-Ikuspuntuak
-Ondorioak

ULERGARRITASUNA



Hizkera argia eta ulergarria, entzuleek ulertzeko modukoa.



5.1. Platon. Behinola podcasta.

Jarraian, Platonen leizearen mitoa duzue azalduta, podcast formatuan.

Behinola podcasta. Leizearen mitoa.

Ahotsak: Susana Sancho eta Batirtze Urrutia. Musika: videvo.net



Ahotsak: Susana Sancho eta Batirtze Urrutia

Ongi etorri Behinola podcast-era.


Ohi denez, antzinako egile baten lana ekarri dugu zuongana, eztabaida kritikoa pizteko asmoz. Aste honetan, podcast-en iruzkinetan, zuetako askok Platonen leizearen mitoa azaltzea eskatu duzue; beraz, mito hori aztertzeari ekingo diogu.

Platon K.a. 427. urtean jaio zen Atenasen. Benetako izena Aristokles zuen. Gorputz-hezkuntzako irakasleak jarri zion Platon izengoitia, zabala zelako. Grezierazko Platon hitzak zabala esan nahi du.

Platonek asko ikasi zuen gaztaroan. Sokratesen eskoletara joaten zen. Sokratesek ez zuen idazkirik utzi. Horregatik, Whitehead filosofoak esan zuen: *Mendebaldeko pentsamenduaren oinarriak Platonen elkarrizketak lanaren oin-orrien iruzkinak baino ez dira.*

Sokrates kondenatu eta pozoitu zuten, garai hartako korrante filosofikoaren kontra joatearren. Gauza bera gertatuko zitzaielakoan, Atenasetik alde egin behar izan zuen Platonek, eta Mediterraneoan zehar bidaiatu zuen. Hortaz, Egipto, Sizilia eta Italiako kulturak bereganatu zituen.

Atenasera itzuli zenean, Platonek *Akademia* sortu zuen, filosofiaren historiako lehen unibertsitate-eskola. Platonek Akademia irakatsi zuen bizitzaren aldi luze batean, eta ikasle gorenak izan zituen; Aristoteles, besteak beste.
Platon Atenasen hil zen, K.a. 347. urtean, 80 urte zituela.



Wikipediatik

LEIZEAREN MITOA

Leizearen mitoa *Politeia* liburuan dago, VII. atalean. Liburu horretan, hiri-estatu idealaren, gizakiaren eta justiziaren ereduak erakusten ditu Platonek. 10 liburu dira, elkarrizketa formatuan. *Politeian*, Platonek Sokrates irudikatu zuen, gertuko pertsonekin hizketan. Adituek diote Sokrates Platonen *alter ego* zela, eta horretaz baliatzen zela bere ideiak adierazteko.

Leizearen mitoan, Sokratesek esaten dio Glaukon lagunari imajinatzeko hainbat gizon, jaio zirenetik kobazulo batean hanketatik eta lepotik kateatuta, aurrera baino begiratu ezinik, eta burua ezin itzulirik. Txikitatik, itzalak besterik ez dituzte ikusi leizeko paretan, kanpoko su batek proiektatuta. Sua eta atxilotuen artean, bide bat dago, eta bidean harresi txiki bat, zeinetan gauza harrigarriak dauden. Harresiaren aurrean, denetariko tresnak garraiatzen dituzten gizakiak daude. Batzuk hizketan ari dira, eta beste batzuk isilik. Atxilotuek soilik haien itzalak ikusten dituzte, suaren argiak paretan proiektatzen dituelako.

Juan Jose Pujana Arzak euskarara egindako itzulpena erabiliko dugu, *Politeia* liburu lanaren hainbat pasarte hona ekartzeko.

Ikus itzazu, bada, gizon batzuk, luzera guztian argirantz sarrera zabal bat zabalik daukan lurpeko leize-egoitza batean baleude bezala, umetatik bertan daudelarik, bernetatik eta samatik loturik, beti leku berean, eta aurrera baino begiratu ezinik, eta, lokarriak direla eta, euren buruak ezin itzulirik; bestalde gizon hauen atzealdetik urrunean eta goitik suargi bat bizturik, eta bide bat goialdean suaren eta atxilotuen artean; ikusazu baita ere bide horren luzeran eginiko harresitxo bat, titiriteroek jendearen aurrean jartzen duten

estalkiaren antzekoa, zeinen gaineratik gauza harrigarriak erakusten dituzten. Harresi horren luzeran, ikus itzazu, bada, gizon batzuk, harresia gainditzeko duten edotariko tresnak eramaten, eta baita giza iduri batzuk ere eta harrizko edo zurezko animalia batzuk eta eginiko guztitariko gauzak ere; eta berezko denez, garraiari hauen artean batzuk hizketan joango dira eta beste batzuk ixilik.

Jarraian, Sokratesek azaltzen dio Glaukoni harresiko gizakiak hizketan arituko balira, ahotsek errebotete egingo luketela kobazuloko paretan. Hori kontuan hartuta, galdetzen dio ea zer pentsatuko luketen atxilotuek, kanpoko ahotsak diren ala itzalen ahotsak. Glaukonek erantzuten du itzalen ahotsak direla pentsatuko luketela atxilotuek.

Eta espetxe horrek aurreko hormatik oihartzun egingo balu, zer? Eta igarotzen diren artetik inork hitzegin lezakeen bakoitzean, uste duzu agertzen zaizkien itzalak baino bestek hitzegiten diela uste izango dutenik?

Aurrerago, Sokratesek beste hipotesi bat planteatzen du. Hona hipotesia:

Imajinatu preso bat leizetik kanpora ateratzen dela, harresiko gizakiak dauden tokira. Hasieran, suaren argiak, eta gero eguzkiarenak, presoaren itsutuko lukete, eta ez luke ezer ikusiko. Iluntzean, aldiz, eguzkiaren isla ikusiko luke uretan, eguzkiari zuzen begira liezaioke, eta eguzkiaren argiak dena argiztatzen duela ulertuko luke. Era horretan, leizean dauden itzalak irrealak direla pentsatuko luke, eta objektuen eta gizakien itzal hutsak direla jakingo luke. Behin egia jakinda, zoriontsuagoa izango litzateke? Barruan dauden gizonak baino jakintsuagoa dela pentsatuko luke? Eta kobazulora itzuliko balitz, berak esandakoa onartuko lukete barruko presoek? Edo eguzkiak begiak hondatu dizkiola pentsatuko lukete, eta barre egingo liokete? Hilko lukete ezberdin pentsatzen duelako?

Eta berriro itzal haienez eritziak emanez beti atxiloturik egon direnekin lehiatu behar balu, ondino lauso dela, begiak egokitu aurretik, eta egokitze-epe hori ez litzateke guztiz laburra izango, ez ote litzateke barregarri bihurtuko eta berari buruz ez ote litzateke esango, gora igo delako, han begiak guztiz hondatu dituela, eta gora igotzearen ez duela merezi. Eta askatzera eta gora eramatera ahaleginduko litzatekeena, euren eskuetan hartu ahal balezate eta hil, ez ote lukete hilko?

-Zalantzarik gabe, esan zuen.

Leizearen mitoa alegoria baten moduan ulertu behar dugu. Amaieran, Sokratesen hitzalditxo bat dago, mitoaren esanahia argitzeko. Zati horretan, Platonek bere pentsamendua laburbiltzen du.

Platonek ondorioztatzen du benetako mundua (eguzkia, leizetik kanpo dagoena) adimen-
mundua dela: onaren ideia, jakintza, egia, arima, nekez ikusten dena; eta ikusmen-
mundua (iluntasuna, leize barrukoa), zentzumenen mundua dela: ezjakintasuna, gezurra, gorputza,
ikuserraza. Ondorioz, onaren ideia aurkitzen duenak ingurukoei ikusarazi behar die.


*Iduri hau, bada, esan nuen, ene adiskide Glaukon, oso-osoa aurrerago esan direnen
ondoan jarri behar da; alde batetik, ikusmenaren bidez agertzen dena espetxeko
egoitzarekin parekatu behar da, eta bestetik, bertan dagoen suaren argia eguzkiaren
indarrarekin.*

*(...) Hauxe da, bada, nire eritzia: adimenaren eremuan azkenen eta nekez ikusten dena
onaren ideia da, eta ikusirikoan, ondorenez atara behar da, bera dela zuzentasun eta
edertasun guztien iturburua gauza guztietan; ikusmen-eremuan, argia eta argiaren jabea
sortu duena; adimen-eremuan bera da nagusia, egia eta ezaguera ematen duena; eta ikusi
ere bera ikusi behar du, zentzuz aritzea nahi duenak bere baitan edo herriaren aurrean.*

Orain galdera batzuk, pentsarazteko.

- Irekita gaude errealitate berrietara ala begi aurrean duguna soilik ikusten dugu?
- Nahiago duzue egia jakin, sufritu arren, ala gezurretan bizi eta zoriontsua izan?
- Non dago egia? Nola dakigu ez gaudela leize (matrix) batean?
- Zerbait egia dela dakizuenean, saiatzen zarete ingurukoak konbentzitzen?
- Platonen moduan, pentsatzen duzue goiko errealitate bat dagoela, existentziaren esentzia dena, zentzumenen bidez antzemateko zaila dena?

Espero dugu Platonen mitoak zer pentsatua eman izana, horixe delako gure podcasten
helburua, zuei pentsaraztea. Gogoratu iruzkinetan iritzia eman dezakezuela. Datorren
astean: Aristoteles. Ez galdu!




5.2. Aristoteles. Sortu *Behinola* podcastaren 2. atala.

Orain, osatu *Behinola* Podcast-en 2. atala, Aristotelesen filosofia azaltzeko. Filosofoaren
hainbat testu aukeratu ditugu *Nikomakorentzako etika* liburutik, nahi izanez gero
abiapuntutzat erabiltzeko. Liburu hori etikaz eta moralaz idatzitako lehenengo tratatuetako bat
da Mendebaldean. Nikomako Aristotelesen semea zen. Ez dakigu hari zuzendu zion liburua
Aristotelesek ala semeak aitaren lanari iruzkinak egin, eta adituek bildu zituzten. Testuak

irakurri aurretik, Aristotelesen biografiaz eta pentsamenduaren oinarriez informazioa bilatu eta ulertu beharko duzue, podcast-a behar bezala antolatzeko.

Nikomakorentzako etika. Aristoteles.



Boeken

<p>Zoriontasunaz</p>	<p><i>Aristotelesek zoriontasunaren gaia nola aztertzen duen zuzen ulertzeko, NEren Aristotelesek zoriontasunaz hitz egiten duenean ez du aipatzen uneko edozein poz, zoriontasuna bizialdi osorako kontua baita, bizialdi osoari dagokio; beraz, izateko, bizitzeko, aukeratzeko eta jokatzeko modu iraunkor jakin bat dakar berarekin. Bestalde, helburua ez da edozein poz hutsal, gure bizitza ahalik eta hobekien bizitzeko aukera baizik. Azken finean, zehaztu behar da bizitza betea, atsegina eta bizigarria zer den. Aristotelesen ustez, hori da zoriontasuna.</i></p>
<p>Laguntasunaz</p>	<p><i>Aristotelesek benetako goraipamena eskaintzen dio adiskidetasunari. Adiskidetasuna zerbait noblea da, eta beharrezkoa ere bai, bizitzarako beharrezkoena: adiskiderik gabe inork ez luke bizi nahi izango, gainerako ondasun guztiak edukita ere. Egia esan, adiskidetasuna giza soziabilitatearen gailurra da. Adiskideen arteko bizikidetzak bizikidetzak perfektua da, hau da, bizikidetzak neurri gorenean. Horregatik, Aristotelesen ustez, adiskidetasuna zoriontasunaren funtsezko aspektua da, bizitza bete eta atsegin baten alde garrantzitsua.</i></p>

<p>Bertuteaz</p>	<p><i>Bertutea bi motatakoa da: adimenezkoa eta etikoa; adimenezkoak irakaskuntzan ditu nagusiki sorrera eta handitzea, eta horregatik, hain zuzen ere, behar ditu esperientzia eta denbora; etikoa, berriz, ohituratik dator, eta hortik izena ere ohitura hitzetik osatua izatea, aldaketa txiki bat eginez. Horrek agerian jartzen du izatez inolako bertute etikorik ez dela sortzen gure baitan, naturako izakien artean ezer ez baita ohituraz aldatzen. Bertuteetan, ostera, lehendabizi jardun, eta, ondoren, eskuratu egiten ditugu. Gainerako arteetan bezalaxe, egin behar dena ikasi ondoren, hori eginez ikasten baitugu; esate baterako, etxeak eraikiz izango gara etxegile, eta zitara joz, zitara-jotzaile. Eta, berdin ere, gauza zuzenak eginez izango gara zuzenak, neurrizko gauzak eginez neurrizkoak, eta adore-ekintzak eginez, adoretzuak.</i></p>
<p>Beldurraz</p>	<p>Neurria gainditzen dutenen artean, beldurrik ezaz egiten duena izengabea da (esana dugu lehenago aztura asko izengabeak direla); baina zoroa edo bihozgabea litzateke deusen beldur ez balitz, ez lurrikararen beldur, ez olatuen beldur, zeltei buruz esaten den bezala. Bestalde, gauza beldurgarriei dagokienez, bihotz handiegia duena ausartegia da; eta ausartegia harroputza eta adore-itxura egiten duena ere bada, nonbait; behintzat, hark egoera beldurgarrietan jokatzeko duen moduan agertu nahi du horrek; beraz, ahal duen guztian imitatzen du. Horregatik, haietako gehienek ere beren burua adoretzat hartzen duten koldarrak izaten dira; egoera horietan harro agertzen badira ere, ez baitituzte gauza beldurgarriak jasaten.</p>

Desiraz

Desiren artean, badirudi batzuk baterakoak direla, eta beste batzuk, bereziak eta eskuratuak; adibidez, elikadurarena berezkoa da, behartsu orok elikagai solido edo likidoa desiratzen baitu, eta, batzuetan, bata eta bestea; eta sexu-harremanak, Homerok dioenez, adinaren sasoi ederrean dagoen gazteak. Baina inolaz ere ez du gizaki orok hori edo hura desiratzen, ezta gauza berberak ere; horregatik, badirudi desirak gurea den zerbait direla. Hala ere, berezko zerbait ere badute, behintzat, gauza batzuk batzuentzat baitira atseginak, eta beste batzuk beste batzuentzat, eta zenbait gauza gainerakoak baino atseginagoak dira guztientzat.

Klasikoak bilduma. Itzultzailea: Javier Aguirre Santos.

Podcasten testua

6. JARDUERA. ERROMAKO LITERATURA.

Greziako idazleak literatura klasikoaren aitzindariak izan ziren. Lirikan, Virgilioren *Eneidak*, esaterako, *Odisean* du iturburua. Komediagile latindarrek ere greziarregandik ikasi zuten komedia. Argumentua, egitura eta pertsonaia motak Aristofanes eta Menandro antzerkigile greziarregandik ikasi zituzten.

Bi egile erromatar aipatuko ditugu, umoreaz baliatu zirelako gizarteari kritika egiteko: Apuleio eta Plauto.




6.1. Apuleio.

Apuleiok *Metamorfosiak* edo *Urrezko astoa* eleberria idatzi zuen. Literatura latindarraren lan garrantzitsuenetakotzat jotzen dute adituek, pikaroen eleberrien aitzindaria delako. Sorginkeria batengatik mando bihurtzen den gazte baten abenturak kontatzen ditu Apuleiok. Amaieran, Isis jainkosak Luzio gaztea askatu zuen, eta haren dizipulu zintzoa bilakatu zen.

Apuleiok gordintasun osoz erakusten dizkigu bere garaiko gizartearen alderik kritikagarrienak, gizarte-maila baxuko pertsonaien gorabeheren bidez. Patuaren kolperik bortitzenak jasota ere, protagonistak, Luziok, jakin-min izugarria erakusten du. Egoera latz horietatik irteteko irrika ez du inoiz galtzen, nahiz eta kontrako gertakizunak etengabe pairatu. Antiheroia dugu,

beraz, protagonista, baina etengabeko jakin-minak elikatzen du, eta bidaiari amore ez emateak heroi bihurtzen du antiheroia, istorioaren amaieran.

medievalias



Luzio protagonistaren metamorfosiari buruzko pasartean, Fotide zerbitzariak txori bihurtu du Panfila izeneko nagusia, ukendu bat igurtzita. Luziok hori ikusita, gauza bera nahi du, hau da, txori bihurtu dezan. Fotidek beste ukendu bat igurtzi, eta mando bihurtu du Luzio.

Irakurri pasarte horren laburpen hau, eta eman itzazue azpimarratutako hitzen sinonimoak.

Itzul.: Juan Kruz Igerabide, Anjel Lertxundi. Euskarari ekarriak. Armiarma.eus.

Ni neure zinezko agindua esan eta esan ari nintzaiolarik, neska gelan sartu zen oso urduri, eta potetxo bat atera zuen kutxatilatik. Potetxoa hartu, musu eman, hegaldi zoriontsua eman ziezadala eskatu, eta nire jantzi guztiak urrun **jaurti** nituen nigandik; nire eskua lehiatsu sartu, ukendu **mordo** bat atera, eta gorputzaren atal guztiak igurtzi nituen. Txori bat **bezala** hasi nintzen **jokatzen**, besoak, orain bat orain bestea, mugitzen **ahaleginduz**, baina han ez zen **agertzen** ez hegaxka ez lumaxkaren inolako **arrastorik**. Aitzitik, nire ileak loditzen hasi ziren, ile-sorta bihurtu arte; nire azal-mintz leuna gogortzen hasi zen, **larru** bihurtu arte; nire eskuen muturrean hatzek bereizketa galdu zuten, harik eta **oin-azazkal** bakarra osatu zuten arte; eta nire bizkarrezurraren behealdetik **isats** luzea ageri zen. Gainera, aurpegia handitu zitzaidan, ahoa luzatu, sudurra zabaldu, eta ezpaina **zintzilikatu**; belarriak, beren aldetik, neurriz gora haziak neuzkan, eta ilez estaliak. Eta nire zoritxarreko aldakuntza hartako kontsolamendu bakarra: Fotide beso artean ezin hartu banuen ere, ederki haziak neuzkan behintzat neure dohain naturalak.

Neure gorputzari begiratu, eta ikusi nuenean hegazti ordeztu **bihurtu** nintzela, Fotidaren jokabidea madarikatu nuen; baina, **keinurik** ezin egin eta giza ahotsik ere ez neukanez, besterik ez, zeharka begiratzera beharturik, ezpainak zintzilik eta begiak heze, gaitzespen isilak adierazten nizkion. Neska, egoera hartan ikusi ninduenean, eskuez aurpegiari kolpeka hasi zen haserre betean, eta **oihu** egin zuen:

— Hila nauk, madarikatu hau: urduritasunak eta presak gauzak oker eginarazi zizkidatek eta, poteak antzekoak izanik, nahastu egin ditiat. Gaitz erdi, ordea, erremedio erraza **baitu** metamorfosi horrek: **aski** duk arrosa batzuk marruskatzea, asto izateari utzi, eta ene Luzio izatera itzultzeko. **Tamala** atzo arratsaldean, besteetan bezala, guretzat koroa batzuk egin ez izana; gau bat ere ez huke itxaron beharko. Hala ere, argitu bezain azkar, erremedioa emango zaik laster-laster.

Jaurti =

Mordoa =


Bezala =

Jokatu =


Agertu =

Arrasto =
Larru =
Oin-azazkal =
Isats =
Zintzilikatu =
Bihurtu =
Keinurik =
Oihu =
Baitu =
Aski =
Tamala =

<https://wordwall.net/es/resource/63530372>



Erromako literaturan, badugu umorean aditua den beste idazle bat: Plauto.
Plautok komedia generoa landu zuen. Idazle oparoa izan zen: 130 komedia baino gehiago egin zituen. Komediarik ezagunena *Miles Gloriosus* izan zen, *Militar harroputza* euskaraz. Endredoizko maitasun-komedia da. Hona hemen argudioaren laburpena.



Argumentua

Atenastar gazte bat, Pleusikles, eta prostituta bat, Filokomasia, zeharo maiteminduta zeuden.

Pleusikles kanpora abiatu zen mandataria gisa. Orduan, militar zahar batek, Pirgopolinizesek, Filokomasia bahitu zuen, eta Efesora eraman zuen indarrez. Pleusiklesen morroia, Palestrion, itsasoratu egin zen, ugazabari gertatutakoaren berri emateko, baina bidean pirata talde batek harrapatu zuen, eta Pirgopolinizes militarren zerbitzuean jarri zuten, militarri oparia egiteko. Egoera horretan, Palestrion esklaboak gutuna idatzi zion Pleusiklesi, Efesora etor zedin lehenbailehen.

Pleusikles ahalik eta arinen joan zen Filokomasiaren eta Palestrionen bila, biak militarren etxean indarrez harrapatuta baitzeuden. Efesora heldu zenean, Pleusiklesen aitaren lagun batek, Periplektomenok, hartu zuen etxean. Gainera, aitaren lagunaren etxea eta militarrena ondo-ondoan zeuden.

Palestrion morroiak ideia bat izan zuen, eta pasabide bat egin zuen bi etxeen arteko horman, Pleusiklesi laguntzeko. Pasabide horrek militarren etxea eta Periplektomenoren etxea lotzen zuen. Era horretan, maitaleak elkartu ahal ziren, etxe batean zein bestean, inork susmatu gabe.

Behin militarren morroi batek, Eszeledrok, Filokomasia ikusi zuen Periplektomenoren etxetik ateratzen, eta susmoa hartu zuen. Palestrionek eta Filokomasiak sinetsarazi zioten militarri Filokomasiak Justa izeneko ahizpa bikia zuela, eta horixe zela Eszeledrok ikusitakoa.

Azkenean, Periplektomenok emakume bat kontratatu zuen militarra maitemintzeko, Peusiklesei eta Filokomasiari lagundu nahian. Militarrek gezurra sinetsi zuen, eta emakume horrekin erabat maitemindu zen. Beraz, Filokomasia eta Palestrion libre utzi zituen. Militar harroputza gehiago hondoratzeko, Periplektomenoren zerbitzariak jipoitu egin zuten adulterioa leporatuta, kontratatutako emakumea ezkontuta zegoela sinetsarazi ziotelako.

Irakurri pasartea eta erantzun galderei.

V. eszenaren pasartea

Autorea(k): Gidor Bilbao Telletxea, Paula Garcia Iraeta, Maialen Utrilla Arana.

Pertsonaiak: Palestrión (Pleusiklesen esklaboa), Filocomasia (Pleusiklesen maitalea) eta Eszeledro (Pirgopolinizes militarren esklaboa)

PA. — Eta, orduan, nor zaitugu, bada?

FI. — Justa.

ES. — Gaizki ari zara, ez zara justua: Bidegabe ari zara, eta ez zuzen, eta bidegabekeriaz ari zara jokatzeko nire ugazabarekin.

FI. — Nor? Neu?

ES. — Bai. Zeu.

FI. — Neu. Atzo Efesora lagun gazte atenastar batekin heldu naizen hori?

PA. — Ea! Zertara etorri zara Efesora?

FI. — Esan didate nire ahizpa bikia hemen dagoela, eta bila etorri naiz.

ES. — Zitala zara, gero!

FI. — Hori baino, ergela naiz hemen zurekin hizketan egotearren. Banoa!

ES. — Ez zara joango!

FI. — Aska nazazue!

ES. — Bete-bete harrapatu zaitugu. Ez zaitut askatuko.

FI. — Ba, nire eskuak joaraziko ditut, zure masailetan, hain zuen, askatzen ez banauzu

ES. — (Palestrioni.) Zer demontre egiten duzu hor? Harrapa ezazu!

PA. — Ez dut neure burua istilutan sartzeko inongo interesik, ez baitakit Filokomasia den, edo berarekin antz handia duen neskaren bat.

FI. — Askatuko nauzu ala ez nauzu askatuko?

ES. — Askatu neuk? kontrakoa: Nahita, gogoz kontra, nahi ala ez, sartuko zaitut etxean, borondatez ez bazatoz!

FI. — Ni iragaitzaz nago hemen, Atikako Atenasen bizi naiz. Nik ez dut etxe honekin inongo zerikusirik. Ez zaituztet ezagutzen, ezta nor zareten ere jakiten.

ES. — Sala nazazu, nahi baduzu. Nik ez zaitut askatuko, etxera sartuko zarela zin egiten didazun arte.

FI. — Zarena zarela, zuk bortxaz behartu nauzu. Askatzen banauzu, zuk agindutako tokira sartuko naizela zin degizut.

ES. — Tira, aske zaude jada!

FI. — Eta aske nagoenez, banoa! (Periplektomeno auzokoaren etxera doa.)

ES. — Horren gutxi balio du emakumeen hitzak!

PA. — Eszeledro, harrapakinak ihes egin du!

Ziur ugazabaren maitalea dela. Egingo didazu mesede bat?

ES. — Zer?

PA. — Ekardazu ezpata bat!

ES. — Baina zer egin nahi duzu ezpata batekin?

PA. — Etxean sartuko naiz, baimena eskatu gabe, eta Filokomasiarekin musuka harrapatzen dudana lehena, harrapatu eta lepoa moztuko diot

ES. — Baina benetan Filokomasia dela uste duzu?
PA. — Ez dut uste. Ziur nago.

1. Argumentuaren zer zatiri egiten dio erreferentzia pasarteak?
2. Zer asmatu zuen Filokomasiak, militarren esklaboak Pleusiklesekin ikusi zuenean?
3. Nora joan zen Filokomasia Eszeledrok askatu zuenean?
4. Zer uste duzu egin zuela Filokomasiak auzokoaren etxean gezurra mantentzeko?

Ausartuko zinatekete *Militar harroputzaren* aurreko pasarteak antzeztu? Antzeztu aurretik, irakurri infografia hau, eta erantzun galderari. Askoz naturalagoa izango da antzezpena.

ANTZEZTU AURRETIK

1. IRAKURRI TESTUA

Askotan irakurri, guztiz ulertu arte.



2. IRUDIKATU

Irakurri bitartean, eszena irudikatu: pertsonaiak, atmosfera, atrezzoak...



3. PERTSONAIAK KARAKTERIZATU

Pertsonaien adina, izaera, generoa, itxura, estereotipoa... pentsatu.



4. EGOERA

Tokia eta pertsonaien nondik norakoak imajinatu: pertsonaiak non dauden, nora doazen eta nondik datozen.



5. EKINTZAK

Pertsonaiei gertatzen zaizkien gorabeherak dira. Naturalak izan behar dute.



6. TESTUA ZATITU

Eszenetan banatzeak antzeztan laguntzen du. Pertsonaien irteerak edo sarrerak eszena aldatzea dakarte. Eszenek izenburua izan dezakete.



Erantzun galderei, antzestu aurretik.


1. Ondo ulertu duzue pasarteak?
2. Zer tokitan irudikatzen duzue eszena? Kanean, auzokoaren etxearen atarian, beste nonbait?
3. Nolakoa da Filokomasia, zuen ustez? Emakume lotsatia ala lotsagabea? Itxura aldetik, eder imajinatzen duzue?
4. Nolakoa da Eszeledro? Zerbitzari lagunkoia eta atsegina ala mendekoa eta zakarra?
5. Nolakoa da Palestrion? Zerbitzari irudimentsua, ona eta barregarria ala sormenik gabekoa, gaiztoa eta gatzgabea?
6. Zer egoeratan daude pertsonaiak, eszenara sartu aurretik? Eta eszenatik irten ondoren?
7. Filokomasia maitalearenetik dator? Nola egongo da? Urduri, aztoratua, jolasti...?
8. Nora doa Filokomasia Eszeledrok askatzen duenean?
9. Nola dago Eszeledro? Haserre, mesfidati, ironiko?
10. Palestrionek egoeraz gozaten du ala beldurtuta dago?



6.3. Ovidio.

Erromako literaturari amaiera emateko, Ovidio olerkaria aipatu behar dugu, bere lanek Erdi Aroan arrakasta itzela lortu zutelako. *Metamorfosiak* lanik ezagunena izan arren, *Ars amandi*, *Maita-bidea* liburuak garrantzi handia izan zuen, garai hartan polemika handia sortu zuelako. Augusto enperadoreak ale guztiak liburutegi publiko guztietatik erretiratzeko agindu zuen, eta erbestera, Tomis izeneko herrira (egungo Errumania), bidali zuen Ovidio. Ez dakigu liburuaren eduki erotikoa izan zen arrazoi bakarra ala beste iskanbilaren bat egon zen, baina Augustok ez zion Ovidiori barkatu, eta erbestean hil zen.

Hurrengo testu hau *Maita-bidea* itzulpenaren argumentuaren laburpena da.



Ovidiusen Maita-Bidea, Andima Ibiñagabeitiak euskaratua.



Maita-bidea lana sarrera batek eta hiru liburuxkak osatzen dute. Sarreran, Ovidiok dio maitasun-esperientzietan oinarrituta idatzi zuela. Liburuak sortutako iskanbila ulertzeko, kontuan izan behar dugu garai hartan, Erroman, adulterioa debekatuta zegoela.

1. liburua

Lehenengoz, emakume ezkonduetara ohartarazten die liburua ez irakurtzeko. Gizon ezkongabeei zuzenduta dagoela dio. Ovidiok emakumeak konkistatzeko aholkuak ematen dizkie. Hona hemen hainbat aholku:

- Gizon ezkongabeek toki zehatzetara joan behar dute emakumeekin elkartzeko: Zirkura, antzokira, jaietara...
- Toki estuetan saiatuko dira emakumeengana fisikoki hurbiltzen.
- Gizonak elkarrizketan jakintsu plantak egin behar dituzte, emakumeak harritzeko.
- Edozein emakume da konkistagarria. Amore ez ematea da kontua.
- Garrantzitsua da emakumeen zerbitzariekin ondo moldatzea, bitartekari moduan erabiltzeko.
- Eskutitzetan promesak, desirak, lausenguak... idatzi behar dira, emakumeen ilusioa pizte aldera.
- Emakumeak konkistatzeko zailak direnean, trikimailuak erabil daitezke: haien aurrean maitasunagatik gaixo eta zurbil agertzea, nahita urruntzea, lagun moduan aurkeztea...

2. liburua

Bigarren liburuxkan, emakume maitatuak mantentzeko aholkuak ematen ditu. Maitasun-edabeez ez dute ezertarako balio, Ovidioren ustez. Arima eta izpiritua landu behar dira, batik batik, kanpoko edertasuna iragankorra da eta. Laburbilduz, aholku hauek ematen ditu:

- Izan atsegina emakumeekin. Lagundu, eskatzen duten guztietan.
- Ez egin kontra. Arrazoia eman etengabe.
- Zenbat eta ausartago jokatu emakumeekin, hainbat eta luzeagoa izango da maitasun-harremana.
- Konkistatu ostean, opari eta lausengu ugari eskaini.
- Emakumeak gaixotzen badira, zaindu, eta kezka izugarria adierazi.
- Emakumeak guztiz konkistatuta daudenean, gizonak urrundu behar dute noizean behin, interesa berpizteko.
- Gizonak desleialak izan badira, emakumeei ez diete inola ere aitortu behar.
- Emakumeak desleialak badira, gizonak ez dute jarrera oldarkorrik izan behar. Hobe ez ohartuarena egitea.
- Maitaleen izenik ez da esan behar.
- Sexu-jardunean, aurreko jolasei eman behar zaie garrantzia.

3. liburua

Hirugarren liburuxka emakumeei eskaintzen die. Esaten die maitaleak ez errefusatzeko, eta gehiegi ez itzaroteko, denbora berehala igarotzen da eta. Edertasun-trikimailuak ematen dizkie emakumeei: nola jarri ileordea, nola disimulatu garaiera txikia... Aholku ugari agertzen dira. Esaterako:

- Pasieran ibili, gizonak ikusteko.
- Babestu gizon gezurtiengandik, baita harropuzteengandik ere.
- Kontuz onura ekonomikoa lortu nahi duten gizonekin.
- Emakumeei maitalerik balute, ondo ezkutatu eskutitzak, eta harreman onak izan zerbitzariekin, maitaleekiko harremana ezkutatzeko lagun diezaieten.
- Batzuetan, iskin eta gogor agertu gizonen aurrean, interesa pizteko.
- Nahi beste maitale izatera animatzen ditu emakumeak.



Ring dinamika.



CREATED BY VECTORPORTAL.COM

Eztabaida kritikoa egiteko dinamika da. Irakasleak 4 orri jarriko ditu gelako 4 izkinetan. Era honetan:

1. orrian, *gutziz ados* jarriko du.
2. orrian, *ados*.
3. orrian, *kontra*.
4. orrian, *gutziz kontra*.

Irakasleak *Maita-bidea* liburuko aurreko laburpenetik hainbat aholku aukeratuko ditu. Lehenengo aholkua ozen irakurriko du, eta ikasleek horri buruz zer uste duten pentsatuko dute. Iritziaren arabera, gelako 4 izkinetako batean kokatuko dira.

Gero, izkina bakoitzean dauden ikasleek 2 minutuz eztabaidatuko dute, iritzia sostengatzen duten argudioak bilatzeko. 2 minutuak igaro direnean, talde bakoitzak iritzia adieraziko du, bozeramaile baten bidez, talde handian. Guztiek eztabaidatu ostean, norbaitek iritzia aldatu badu, beste talde batera joan daiteke. Denboraren arabera, aholku gehiago edo gutxiago balora daitezke.


Maitasunaren inguruko gai polemikoz aritu zen Ovidio *Maita-bidea* liburuan. Aurreko dinamikan ikusi duzue, gai horiek unibertsalak dira, eta egungo gizartean ere eztabaidagarriak dira.

Hurrengo ariketa honetan, *Maita-bidea* liburutik pasarte bat irakurri, eta gaia zehaztu ondoren, idatzi mikroantzerki labur bat gai horren inguruan. Egungo garaietara ekarri, hau da, XXI. mendean gerta litekeen egoera bat izan behar du. Mikroantzerkia idatzi ondoren, antzez dezakezue. Ikus honako adibide hau:

Ederra berez hauskorra! Urteak zimeltzen dute, eta aldiak bere sare artean higitzen. Lili ubelak ezta lirio eskuzabalak ez daude beti lore. Larrosa muskiltzen denean, arantza zorrozten da. Era berean, hiri ere ile urdinak erneko zaizkik, eta tximurrez soina goldatuko. Arima moldatu ezak, iraunkorra baita, eta edertasunari etsiko diok: hauxe da herio azkeneraino dirauena.

Ovidiusen *Maita-Bidea*, Andima Ibiñagabeitiak euskaratua

Mikroantzerkia. Gaia: edertasunaren garrantzia gazteentzat.



TIK-TOK

E: -Aizu! Nekatu naiz jada “posturitik” jartzen. Noiz arte izango nauzu kamera aurrean tripa barrurantz eta “muturtxoak” ateratzen? Gose naiz, jope! Tira, atera bokatak jada!

I: -Aizu, tripa ez zenuke barrurantz sartu beharko, pizza barra-barra lagunekin etengabe jango ez bazenu, tri-pon-tzi ha-la-koa!

E: (*Flexioak egiten*)-Aiba! Hondartzara heldu garetetik, gora eta behera egon naiz eta! Ukitu, ukitu! Horrelako giharrak ez ditu inork inguruan, nik dakidala... (*Bizepsak erakutsiz*)

I: -Bai, ba! Horregatik. “Tableta” gehiago markatuta, ba, “konjunto” hobea izango zenuke. Tira, jarri abdominalak egiten, eta beste Tik-tok bat grabatuko dizut.

E: -Joder, “objektu” sentitzen naiz. Beti ni grabatzen, lagunen aurrean harro plantak egiteko. Gainera, nire sabela *Lobeznoarena* baino gogorrago dago. Bide batez, nik ez dizut ezer esan ilea beti solte eramateko duzun maniari buruz. Gogorazten dizut surf ikastaroa ez duzula egin belarri handiak dituzulako.

I: -Mendekari alena! Nola dakizu atzamarra zaurian sartzen! Ba, esango dizut gauza bat. Begiratu, begiratu nire *Instagram*eko azken jarraitzailea. (*Sakelako telefonoa erakutsi nahian*) Dortoka baten oskola du sabelaren ordezt!

E: (*Sakelakoa begiratu gabe*)- Jope! Hau dezepzioa! Itxurari baino ez diozu begiratzen. Ea! (*azkenean amore ematen du*) Erakutsi nor den hori.

I: Ziur? (*sakelakoa hurbiltzen*)

K: Osti-osti-osti! A ze katxarroa!

(*Kezkatuta*) Bueno, hala ere, nabaritzen da “posea” dela dena. Ezer ez da dirudiena.

Aizu! (*postura aldatuz eta tonu iradokitzailean*)

Grabadazu beste Tik-tok bat, orain alboz. Lehen, egia esan, ez dut nire onena eman. A, eta poltsan dagoen patata-tortilla bokata zuretzat, bale? Ez naiz batere gose.

Antzerkia bide. Susana sancho eta Larraitz garcía. Gaumin argitaletxea.

Orain zuen txanda da. Irakurri honako pasarte hau, zehaztu gaia, eta idatzi mikroantzerkia.

Geroxeago ohe atseginak besteren batekin aldizkatzen ez ote dituzun suma beza. Amarru horiek gabe maitasuna higituko litzateke. Atakak ireki orduko ez da zaldi beroa lasterka gorrian hasten, atzetik eta aurretik dabilzkionak ikustean baizik. Irainak maitegarra berpizten du, nahiz itzalita egon. (...) Maitasuna zirikatzeke ondo litzateke morroi kopetilunen bat barandari dabilela edota maitemindu haserrekoien bat.

Ovidiusen *Maita-Bidea*, Andima Ibiñagabeitiak euskaratua

Idatzi hemen mikroantzerkia. Gaia:

APLIKAZIO-FASEA



Ikas-egoeran zehar ikasitako guztia aplikatzeko garaia heldu da. Dakizuenez, zuen lana literatura-lehiaketa baterako materiala sortzea izango da. Hona hemen lehiaketaren oinarriak:

KLASIKOAK GARA LITERATURA-LEHIAKETA

1



NORK ZER ANTOLATU

Eusko Jaurlaritzak Klasikoak gara literatura-lehiaketa antolatu du.

Literatura klasikoari buruzko material didaktikoa sortzea da helburua. Materiala formatu digitalean aurkeztu behar da, eta gazteei zuzenduta egongo da.

2

ZERGATIK



Eusko Jaurlaritzak irakurzaletasuna bultzatu nahi du gazteen artean.

3



LEHIAKETA NORENTZAT

Lehiaketa honetan, **16-18 urte bitarteko edozein gazte** aurkez daitezke, batik bat, batxilergoko

1. mailako Literatura Unibertsaleko ikasleak.

Taldekako modalitatea da, 5 ikasle gehienez.

4

MATERIALA



- Eduki argia eta ulergarria, gazteei zuzendua.
- Euskara zuzenean eta zainduan.
- Edozein formatu digitalean. Kalitate teknikoa ere neurtuko da.

5



EPEA

Lanak ikasturtearen 1. hiruhilekoan aurkez daitezke, urriaren 1etik abenduaren 23ra arte.

6



EPAIMAHAIKIDEAK

Bigarren hezkuntzako literatura-irakasleek ikastetxeko lan egokienak helaraziko dizkiete Eusko Jaurlaritzako Euskara teknikariei. Teknikari horiek eta bi idazlek baloratuko dituzte.

7

SARIA



Eusko Jaurlaritzak lanik onenak argitaratuko ditu, eta barnetegi bat antolatuko du udaberrian gazte saridunentzat.

SUSANA SANCHO HERRERO



7. JARDUERA. AZKEN EKOIZPENA. ZER EGIN BEHAR DUGU?

Egitekoa gogoraraziko dizuegu: **Gazteentzako material digitala sortu behar duzue euskaraz, Greziako edo Erromako literatura-testuren bat abiapuntutzat harturik.** Jarraian, lana burutzeko lagungarri suerta dakizkizuen argibideak dituzue, baita lana neurtzeko errubrika ere. Lau urrats hauei jarraituz, erraz egingo duzue azken ekoizpena:

- Literatura-testuak bilatu, irakurri, aukeratu pasartea, hausnartu.
- Testuak sortu
- Ekoizpenaren euskarri digitala aukeratu.
- Ekoizpenaren kalitatea neurtzeko errubrika irakurri.

Literatura-testuak. Abiapuntua.

Testuak edonondik har daitezke. Baldintza bakarrak: Greziako eta Erromako literaturaz, eta euskaraz izatea. Liburuak eta pasarteak aukeratzeko libre zarete. Beharko bazenute, hona hemen zenbait proposamen:

-*Troiako emakumeak*. Euripides.

<https://antzerti.armiarma.eus/antz6104.htm>

-*Poemak*. Safo.

<https://andima.armiarma.eus/susa/susa0603.htm>

-*Prometeus burdinetan*. Sofokles.

<https://andima.armiarma.eus/eugo/eugo43/eugo4329.htm>

-*Bizitzaren laburtasunaz*. Seneka.

<https://www.ehu.eus/ehg/klasikoak/?f=18>

leonardo.ai



Testuak sortu

Literatura klasikoaren testuak zailak izan daitezke antzinakotasunagatik, baita idazkeragatik ere. Zuen lana testu horiek samurtzea eta erraztea da. Gogoratu testu klasikoak abiapuntua baino ez direla, eta zuek nahi duzuen generora, ingurura, garaira... eraman ditzakezuela. Ez ahaztu unitatean zehar sortutako testu motak:

Azalpen-testuak: proiektuaren nondik norakoak, dinamikak, tutorial modukoak, podcastak...
Biografiaren eta argumentuen laburpenak
Galdetegiak
Galdera sorta, taulak, denbora-lerroak, infografiak...
Olerkiak
Mitoen laburpenak
Mikroantzerkiak
Fikziozko elkarrizketak eta bakarrizketak
Ariketak: hutsuneak bete, kontzeptuak erlazionatu...



Formatu digitala aukeratu

Azalpenak

Infografiak (*Canva, Genially*)
Liburuxkak (*Issuu*)
Bideoak (*Filmora*)
Tutorialak (*Screencast-o-matic*)
Podcastak (*Filmora, Canva*)...



Sormen-lanak

Mikroantzerki antzeztuen grabazioak
(*Bideo formatuan*)
Dinamiken azalpen antzeztuak (*Bideo
formatuan*)
Testuen dramatizazioa (*Bideo zein audio
formatuan*)

Ariketak

Galdetegiak (*Google forms*)
Jokoak (*Educaplay, Wordwall*)



Aukeratu egile-eskubiderik gabeko testuak, irudiak eta abestiak, eta aitortu beti iturriak.

7.1. Azken ekoizpena neurtzeko errubrika

	BIKAIN	OSO ONDO	ONDO	NAHIKOA	ESKAS
<p>EDUKIA % 40</p> <p>Ekoizpenaren mamiaren kalitatea. Egokitasuna eta Koherentzia. Argitasuna, originaltasuna, interesa.</p>	<p>Ekoizpen bikaina. Komunikazio-helburua, mezua eta hartzailea ezin argiagoak dira. Luzera, ezin egokiagoa. Ideiak, maisuki lotuta, guztiz koherenteak eta argiak. Ekoiztitakoak interes itzela sortu du. Aparteko sormena erakutsi du. Sortutako produktua, zeharo originala. Izugarritzko ahalegina.</p>	<p>Oso ekoizpen ona. Komunikazio-helburua, mezua eta hartzailea, oso ondo adierazita. Luzera, aproposa. Ideiak, oso ondo lotuta, koherenteak eta argiak. Ekoiztitakoa biziki interesgarria da. Sormen handia erakutsi du. Sortutako produktua, arras originala. Ahalegin handiko lana.</p>	<p>Ekoizpen ona. Komunikazio-helburua, mezua eta hartzailea, ondo adierazita. Luzera aproposa. Ideiak, ondo lotuta, koherenteak eta argiak. Ekoiztitakoa interesgarria da. Sormena erakutsi du. Sortutako produktua, nahiko originala. Ahalegin du.</p>	<p>Hala nolako ekoizpena. Komunikazio-helburua, mezua eta hartzailea, batzuetan nahasiegiak. Luzera, doitu beharrekoa. Hainbat ideia solte, koherentzia eskasekoak, eta argitu beharrekoak. Ekoiztitakoak askotan galdu du interesa. Batzuetan, sormena erakutsi du, baina sortutako produktua ez da originala. Ahalegin eskasa.</p>	<p>Ekoizpen eskasa. Komunikazio-helburua, mezua eta hartzailea ez daude argi. Luzera, guztiz desegokia. Ideia gehienak, solte, koherentzia eskasekoak, eta argitu beharrekoak. Ekoiztitakoa interes gabekoa da. Sormen eta ahalegin falta. Sortutako produktua ez da batere originala.</p>
<p>HIZKUNTZA % 20</p> <p>Kohesio-elementuak eta zuzentasuna.</p>	<p>Aditzak, deklinabide-kasuak eta komuntadura, maisuki erabilita. Kohesio-elementuak, ezin egokiagoak: menderagailuen eta lokailuen erabilera, aparta. Ia akatsik gabeko ortografia eta puntuazioa. Hiztegi aberatsa eta zeharo egokia.</p>	<p>Aditzak, deklinabide-kasuak eta komuntadura, oso ondo erabilita. Kohesio-elementuak, biziki egokiak: menderagailuak eta lokailuak, egoki erabilita. Oso ortografia eta puntuazio ona. Hiztegi anitza eta arras egokia.</p>	<p>Aditzak, deklinabide-kasuak eta komuntadura, ondo erabilita. Kohesio-elementuak, egokiak: menderagailuak eta lokailuak, ondo erabilita. Ortografia-edo puntuazio-akatsen bat. Nahiko hiztegi anitza eta egokia.</p>	<p>Akatsak, aditzetan, deklinabide-kasuetan eta komuntaduran. Kohesio-elementuak, batzuetan desegokiak: menderagailuen eta lokailuen erabilera akats nabarmenak. Nahiko akats, ortografian eta puntuazioan. Hiztegi falta.</p>	<p>Akats ugari, aditzetan, deklinabide-kasuetan, eta komuntaduran. Esaldiak ez daude ondo lotuta: menderagailuen eta lokailuen erabilera kaxkarra. Ortografia- eta puntuazio-akats ugari. Hiztegi eskasa.</p>

<p>AHOZKOTASUNA % 20</p> <p>Ahoskera, tonua, intonazioa, abiadura, bolumena, ulermena.</p>	<p>Diskurtsoaren tonua, ezin adierazkorragoa. Bikain ahoskatu du. Abiadura eta bolumen ezin egokiagoak. Adierazitakoa ederto ulertzen da.</p>	<p>Diskurtsoaren tonua, oso ondo aukeratua. Oso ahoskera ona. Abiadura eta bolumen egokiak. Adierazitakoa oso ondo ulertzen da.</p>	<p>Diskurtsoaren tonua, ondo aukeratua. Ahoskera nahiko ona. Abiadura eta bolumena, onargarriak. Adierazitakoa, oro har, ondo ulertzen da.</p>	<p>Diskurtsoaren tonua, askotan ez dator guztiz bat esandakoarekin. Ahoskera, abiadura eta bolumena, hobetu beharrekoak. Adierazitakoa batzuetan ez da ulertzen.</p>	<p>Tonua eta diskurtsoa ez datoz bat. Ahoskera kaxkarra. Abiadura eta bolumen desegokiak. Adierazitakoa ez da ulertzen.</p>
<p>GORPUTZ-ADIERAZPENA % 10</p> <p>Karakterizazioa, ekintzak, helburua, naturaltasuna.</p>	<p>Gorputzaren adierazpenak eta diskurtsoak guztiz bat egiten dute. Pertsonaien karakterizazioa, helburuak eta ekintzak, bikain aukeratuak. Antzezpen zeharo naturala eta sinesgarria.</p>	<p>Gorputzaren adierazpenak eta diskurtsoak bat egiten dute. Pertsonaien karakterizazioa, helburuak eta ekintzak, oso ondo aukeratuak. Antzezpen oso naturala eta sinesgarria.</p>	<p>Gorputzaren adierazpenak eta diskurtsoak gehienetan bat egiten dute. Pertsonaien karakterizazioa, helburuak eta ekintzak, ondo aukeratuak. Oro har, antzezpen naturala eta sinesgarria.</p>	<p>Gorputzaren adierazpenak eta diskurtsoak gutxitan egiten dute bat. Pertsonaien karakterizazioa, helburuak eta ekintzak, batzuetan ez daude argi. Antzezpen onargarria, ez erabat sinesgarria.</p>	<p>Gorputzaren adierazpenak eta diskurtsoak ez dute bat egiten. Pertsonaien karakterizazioa, helburuak eta ekintzak ez daude batere argi. Antzezpen eskasa, eta ez naturala.</p>
<p>TALDE-LANA % 10</p> <p>Parte-hartzea, interakzioa, arazoaren eta denboraren kudeaketa, errespetua.</p>	<p>Parte-hartze bikaina. Ederto koordinatu da taldekideekin, eta laguntza handia eman du. Une guztietan aprobetxatu du denbora, eta arazoak ederto kudeatu ditu. Errespetu itzela erakutsi du.</p>	<p>Oso parte-hartze ona. Oso ondo koordinatu da taldekideekin, eta hainbatetan eskaini du laguntza. Denbora biziki ondo aprobetxatu du, eta arazoak ederto kudeatu ditu. Errespetu handia erakutsi du.</p>	<p>Parte-hartze ona. Ondo koordinatu da taldekideekin, eta laguntza eskaini du. Denbora ondo aprobetxatu du, eta arazoak ederto kudeatu ditu. Errespetua erakutsi du.</p>	<p>Parte-hartze nahikoa. Batzuetan koordinatu da taldekideekin, eta inoiz eskaini du laguntza. Ez du denbora behar bezala aprobetxatu, ezta arazoak kudeatu ere. Nolanahiko errespetua erakutsi du.</p>	<p>Ez du ia parte hartu. Ez da ikaskideekin koordinatu, eta ez du laguntzarik ere eman. Ez du denbora aprobetxatu, eta ez da saiatu arazoak kudeatzen. Errespetu gabeko jarrerak izan ditu.</p>

8. CURRICULUM-ARGUDIAKETA

Curriculum-argudiaketa egiteko, Literatura Unibertsala ikasgaiko irizpideak hartu ditugu. Dekretu honetan daude: *76/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.*

Jarraian, curriculumetik ateratako bi laburpen dituzue ikusgai, taularen nomenklatura hobeto uler dezazuen. Hor deskriptoreen, ebaluazio-irizpideen, eta oinarrizko jakintzen zenbakien interpretazioa agertuko da.

[Literatura Unibertsaleko curriculuma](#)

[Funtsezko kompetentzien deskriptoreak](#)

KLASIKOAK GARA IKAS-EGOERA.

H A S I E R A K O	JARDUERA	KONPETENTZIA ZEHATZAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK	EBALUAZIO-TRESNAK
	<p>1. JARDUERA. PROIEKTUAN MURGILTZEN</p> <p>1.1. Aurkezpen-bideoa. Entzun eta ulertu.</p>	<p>2. Literatura Unibertsaleko klasikoak gozamen- eta ezagutza-iturri gisa ulertzea (...) irakurketaren gizarte-dimentsioaz gozatzeko.</p> <p>HKK2, HKK4, HK1</p>	<p>2.1. Interpretazio pertsonal bat lantzea (...) obren alderdi tematikoak kontuan hartuz (...).</p>	<p>A.2.7. Testuen interpretazioa argudioekin adierazteko estrategiak (...).</p> <p>A.2.3. Obrak interpretatzeko eta literatura-tradizioan duten lekua ulertzeko beharrezkoa den informazio soziohistorikoa, kulturala eta artistikoa.</p>	<p>Behaketa</p>

F A S E A	1.2. Zu eskultore dinamika	<p>4. Mugimendu estetiko nagusien eta ondare unibertsaleko literatura-obrarik garrantzitsuenetako batzuen ezaugarrien ezagutzan oinarrituta, erreferentzia partekatuen esparru bat finkatzea (...) kultura-mapa bat osatzeko.</p> <p>HKK1, HKK2, KPSII.2, KPSIIK5, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1.</p>	<p>4.1. Literatura Unibertsaleko (...) oinarritzko ezaugarrien eta sortu diren testuinguru historiko-kulturalaren eta zinema, musika edo pinturako obren arteko erlazioari buruzko interpretazio pertsonala era multimodalean interpretatzea (...).</p>	<p>A.2.8. Adierazpen-irakurketa, dramatizazioa (...), inplikaturako ulermen-, bereganatze- (...) eta ahozko prozesuak kontuan hartuz.</p>	<p>Talde-lana neurtzeko errubrika</p> <p>(Eranskinetan ere bai)</p>
	<p>2. JARDUERA. EZETZ JAKIN</p> <p>2.1. Zer dakizue Greziako eta Erromako literaturari buruz?</p>	<p>2. Literatura Unibertsaleko klasikoak gozamen- eta ezagutzaiturri gisa ulertzea (...) irakurketaren gizarte-dimentsioaz gozatzeko.</p> <p>HKK2, HKK4, HK1</p>	<p>2.1. Interpretazio pertsonal bat lantzea (...) obren alderdi tematikoak kontuan hartuz (...).</p>	<p>A.2.7. Testuen interpretazioa argudioekin adierazteko estrategiak (...).</p> <p>A.2.3. Obrak interpretatzeko eta literatura-tradizioan duten lekua ulertzeko, beharrezkoa den informazio</p>	<p>Autoebaluazio-galdetegia</p>

G A R R A P E N	<p>2.2. Greziako eta Erromako literatura. Azalpen-bideoa. Denbora-lerroa.</p>	<p>4. Mugimendu estetiko nagusien eta ondare unibertsaleko literatura-obrarik garrantzitsuenetako batzuen ezaugarrien ezagutzan oinarrituta, erreferentzia partekatuen esparru bat finkatzea (...) kultura-mapa bat osatzeko.</p> <p>HKK1, HKK2, KPSII1.2, KPSIIK5, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1.</p>	<p>4.1. Irakurritako testuak beren testuinguru historiko-kulturalean kokatuko dituen eta mugimendu artistikoen eta Literatura Unibertsaleko obra garrantzitsuen osoko ikuspegi bat eskainiko duen erakusketa multimodal bat lantzea (...).</p>	<p>soziohistorikoa, kulturala eta artistikoa.</p> <p>C.2.3. Idaztearen bidez pentsamendua antolatu (...): eskemak, kontzeptu-mapak, laburpenak...</p>	<p>Denbora-lerroa. Genially</p>
	<p>3. JARDUERA. ILIADA ETA ODISEA.</p> <p>3.1. Irakurri testuak. Erantzun galderei. Idatzi elkarrizketa. Antzeztu.</p>	<p>1. Literatura Unibertsaleko klasikoak irakurtzea, interpretatzea, baloratzea (...).</p> <p>HKK2, HKK4, KD2, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.2.</p> <p>3. Hainbat garai, genero eta hizkuntza artistikotako obren arteko loturak ezartzea (...), bakoitzaren ekoizpen-testuinguruaren eta literaturaren eta gizartearen arteko erlazioaren arabera (...).</p> <p>HKK1, HKK2, HKK4, KD1, KPSII5, HK1, KAKK1, KAKK2.</p>	<p>1.1. Irakurritako pasartearen interpretazioa azaltzea eta argudiatzea (...).</p> <p>1.2. Testu pertsonal edo kolektiboak literatura-asmoarekin eta estilo-kontzientziarekin sortzea (...).</p> <p>3.1. Literatura-testuak edo literatura-pasarteak elkarren artean eta beste adierazpen artistiko eta kultural batzuekin alderatzea (...).</p>	<p>A.1.3.1. Imajinatutako munduak: mitoak, mitologiak, heroiak...</p> <p>A.2.12. Literatura-asmoko testuen sorkuntza</p> <p>A.2.8. Adierazpen-irakurketa, dramatizazioa (...), inplikaturako ulermen-, bereganatze- (...) eta oralizazio-prozesuak kontuan hartuz.</p>	<p>Galdera sorten zuzenketa talde handian</p> <p>Idazte-prozesuaren behaketa eta zuzenketa banan-banan</p> <p>Antzezpena neurtzeko errubrika</p> <p>(Eranskinetan ere bai)</p>

<p>3.2. Iliada. Argumentua.</p>	<p>1. Literatura Unibertsaleko klasikoak irakurtzea, interpretatzea, baloratzea (...).</p> <p>HKK2, HKK4, KD2, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.2.</p>	<p>1.1. Irakurritako pasartean interpretazioa azaltzea eta argudiatzea (...).</p>	<p>C.1. Entzute aktiboko, asertibotasunezko, hizkuntza-adeitasunezko eta elkarrizketa-kooperazioko estrategiak.</p> <p>C.3.1. Hainbat iturritako informazioa aurkitu, hautatu eta alderatzeko estrategiak.</p> <p>C.3.1. Hainbat iturritako informazioa aurkitu, hautatu eta alderatzeko estrategiak.</p> <p>C.2.3. Idaztearen bidez pentsamendua antolatu (...): eskemak, kontzeptu-mapak, laburpenak...</p>	<p>Autoebaluazioa. Issuu</p> <p>Autoebaluazioa genially aplikazioan. Odisea. Ulisesen bidaiaren urratsak</p>
<p>3.3. Odisea. Ulisesen bidaiaren urratsak.</p>	<p>1. Literatura Unibertsaleko klasikoak irakurtzea, interpretatzea, baloratzea (...).</p> <p>HKK2, HKK4, KD2, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.2.</p>	<p>1.1. Irakurritako pasartean interpretazioa azaltzea eta argudiatzea (...).</p>		

F A S E A	<p>4. JARDUERA. MITOAK.</p> <p>4.1. Mitoak, mundua azaltzeko era.</p>	<p>1. Literatura Unibertsaleko klasikoak irakurtzea, interpretatzea, baloratzea (...).</p> <p>HKK2, HKK4, KD2, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.2.</p>	<p>1.1. Irakurritako pasarteen interpretazioa azaltzea eta argudiatzea (...).</p>	<p>A.1.3.1. Imajinatutako munduak: mitoak, mitologiak, heroiak...</p> <p>C.3.1. Hainbat iturritako informazioa aurkitu, hautatu eta alderatzeko estrategiak.</p>	<p><u>Kontrol-orria</u></p> <p>(Eranskinetan ere bai)</p>
	<p>4.2. Koadro biziak dinamika</p>	<p>3. Hainbat garai, genero eta hizkuntza artistikotako obren arteko loturak ezartzea (...), bakoitzaren ekoizpen-testuinguruaren eta literaturaren eta gizartearen arteko erlazioaren arabera (...).</p> <p>HKK1, HKK2, HKK4, KD1, KPSII5, HK1, KAKK1, KAKK2.</p>	<p>3.1. Literatura-testuak edo literatura-pasarteak elkarren artean eta beste adierazpen artistiko eta kultural batzuekin alderatzea (...).</p>	<p>C.2.3. Idaztearen bidez pentsamendua antolatu (...): eskemak, kontzeptu-mapak, laburpenak...</p> <p>C.3.1. Hainbat iturritako informazioa aurkitu, hautatu eta alderatzeko estrategiak.</p> <p>A.2.9. Literatura-asmoko testuen sorkuntza.</p> <p>A.2.8. Adierazpen-irakurketa, dramatizazioa (...), inplikaturako ulermen-, bereganatze- (...) eta ahozko prozesuak kontuan hartuz.</p> <p>C.1. Entzute aktiboko, asertibotasunezko, hizkuntza-adeitasunezko eta elkarriketa-kooperazioko estrategiak.</p>	<p><u>Autoebaluazio-galdetegia. Koadro biziak</u></p> <p>(Eranskinetan ere bai)</p>

<p>4.3. Greziako mitoak. Testuartekotasuna.</p>	<p>HKK2, HKK4, KD2, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.2.</p> <p>4. Mugimendu estetiko nagusien eta ondare unibertsaleko literatura-obrarik garrantzitsuenetako batzuen ezaugarrien ezagutzan oinarrituta, erreferentzia partekatuen esparru bat finkatzea (...) kultura-mapa bat osatzeko.</p> <p>HKK1, HKK2, KPSII1.2, KPSIIK5, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1.</p>	<p>1.1. Irakurritako pasarteen interpretazioa azaltzea eta argudiatzea (...).</p> <p>4.1. Irakurritako testuak beren testuinguru historiko-kulturalean kokatuko dituen eta mugimendu artistikoen eta Literatura Unibertsaleko obra garrantzitsuen osoko ikuspegi bat eskainiko duen erakusketa multimodal bat lantzea (...).</p>	<p>A.2.7. Testuen interpretazioa argudioekin adierazteko estrategiak (...).</p> <p>C.2.3. Idaztearen bidez pentsamendua antolatu (...): eskemak, kontzeptu-mapak, laburpenak...</p>	<p>Galdera sorten zuzenketa talde handian</p> <p>Educaplay. minotauraren mitoa</p>
<p>5. JARDUERA. FILOSOFOAK.</p> <p>5.1. Platon.</p>	<p>1. Literatura Unibertsaleko klasikoak irakurtzea, interpretatzea, baloratzea (...).</p> <p>HKK2, HKK4, KD2, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.2.</p>	<p>1.1. Irakurritako pasarteen interpretazioa azaltzea eta argudiatzea (...).</p> <p>1.2. Testu pertsonal edo kolektiboak literatura asmoarekin eta estilo-kontzientziarekin sortzea (...).</p>	<p>A.2.7. Testuen interpretazioa argudioekin adierazteko estrategiak (...).</p> <p>A.2.8. Adierazpen-irakurketa, dramatizazioa (...), inplikaturako ulermen-, bereganatze- (...) eta oralizazio-prozesuak kontuan hartuz.</p>	<p>Podcasten ezaugarriak. Canva</p>

	<p>5.2. Aristoteles.</p>	<p>1. Literatura Unibertsaleko klasikoak irakurtzea, interpretatzea, baloratzea (...).</p> <p>HKK2, HKK4, KD2, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.2.</p>		<p>A.2.9. Literatura-asmoko testuen sorkuntza.</p>	
--	---------------------------------	---	--	---	--

7. JARDUERA. AZKEN EKOIZPENA.

1. Literatura Unibertsaleko klasikoak irakurtzea, interpretatzea, baloratzea (...).

HKK2, HKK4, KD2, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.2.

3. Hainbat garai, genero eta hizkuntza artistikotako obren arteko loturak ezartzea (...), bakoitzaren ekoizpen-testuinguruaren eta literaturaren eta gizartearen arteko erlazioaren arabera (...).

HKK1, HKK2, HKK4, KD1, KPSII5, HK1, KAKK1, KAKK2.

4. Mugimendu estetiko nagusien eta ondare unibertsaleko literatura-obra garrantzitsuenetako batzuen ezaugarrien ezagutzan oinarrituta, erreferentzia partekatuen esparru bat finkatzea (...) kultura-mapa bat osatzeko.

HKK1, HKK2, KPSII1.2, KPSIIK5, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1.

1.1. Irakurritako pasartearen interpretazioa azaltzea eta argudiatzea (...).

1.2. Testu pertsonal edo kolektiboak sortzea literatura-asmoarekin eta estilo-kontzientziarekin (...).

3.1. Literatura-testuak edo literatura-pasarteak elkarren artean eta beste adierazpen artistiko eta kultural batzuekin alderatzea.

4.1. Irakurritako testuak beren testuinguru historiko-kulturalean kokatuko dituen eta mugimendu artistikoen eta literatura unibertsaleko obra garrantzitsuen osoko ikuspegi bat eskainiko duen erakusketa multimodal bat lantzea (...).

A.1.3.1. Imajinatutako munduak: mitoak, mitologiak, heroiak...

A.2.7. Testuen interpretazioa argudioekin adierazteko estrategiak (...).

A.2.8. Adierazpen-irakurketa, dramatizazioa (...), inplikaturako ulermen-, bereganatze-(...) eta ahozko prozesuak kontuan hartuz.

A.2.9. Literatura-asmoko testuen sorkuntza.

C.1. Entzute aktiboko, asertibotasunezko, hizkuntza-adeitasunezko eta elkarriketa-kooperazioko estrategiak.

C.2.3. Idaztearen bidez pentsamendua antolatu (...): eskemak, kontzeptu-mapak, laburpenak...

C.3.1. Hainbat iturritako informazioa aurkitzeko, hautatzeko eta alderatzeko estrategiak.

[Azken ekoizpena neurtzeko errubrika](#)

(Eranskinetan ere bai)

9. ERANSKINA

9.1. Taldeko lana neurtzeko errubrika

	4 Beti	3 la beti	2 Batzuetan	1 la inoiz ez	0 Inoiz ez
Kide guztiek erantzukizuna izatea	Nire kideek beste egiten dut lan, eta nahikoa da jarduera guztiak garaiz bukatzeko. Arreta osoa jartzen diot lanari, eta saiatzen naiz gainerako lana ez eragozten.	Gehienetan nire kideek beste egiten dut lan, eta normalean nahikoa da jarduera guztiak garaiz bukatzeko. Gehienetan, arreta osoa jartzen diot lanari, eta saiatzen naiz gainerako lana ez eragozten.	Nire kideren batek baino lan gutxiago egiten dut, edo nire erritmoa ez da horren ona. Tarteka despistatzen naiz, beste kontu batzuek hitz egiten dut, edo tokitik kanpo nago.	Nire kideek baino lan gutxiago egiten dut, edo oso geldo egiten dut lan. Sarritan, arreta galtzen dut, beste kontu batzuek hitz egiten dut, galtzen naiz edo tokitik kanpo nago.	Lan gutxi egiten dut, eta horrek eragina dauka taldearen errendimenduan. Sarritan taldeko lanari kalte egiten diot: kideen arreta nireganatzen dut eta despistatu egiten ditut.
Entzuten jakitea	Besteen ekarpenak aintzat hartzen ditut, eta ez naiz saiatzen nire iritzia inposatzen. Txandak errespetatzen ditut beti.	Gehienetan besteen ekarpenak aintzat hartzen ditut, eta ez naiz saiatzen nire iritzia inposatzen. Txandak errespetatzen ditut ia beti.	Besteen ekarpenak eta iritzia kontuan hartzen ditut batzuetan, baina beste batzuetan, neureari eusten diot. Txandak errespetatzea kostatzen zait batzuetan.	Gehienetan neureari eusten diodan arren, tarteka kideen ekarpenak kontuan hartzen ditut. Txandak errespetatzea kostatzen zait.	Ez ditut besteen iritzia entzuten. Besteen gainetik hitz egiten dut.
Enpatia izatea	Badakit kideak nola sentitzen diren edo zer gertatzen zaien, eta haien larruan jartzen naiz beti, epaitu aurretik.	Badakit kideak nola sentitzen diren edo zer gertatzen zaien, eta haien larruan jartzen naiz askotan, epaitu aurretik.	Batzuetan ez naiz kideen larruan jartzen. Ez dakit nola sentitzen diren edo zer daukaten. Batzuetan epaitu egiten ditut.	Kideak nola dauden edo nola sentitzen diren jakiteko zailtasun handia daukat. Epaitu egiten ditut maiz, haien larruan jarri gabe.	Ez ditut ikaskideen sentimenduak eta egoerak kontuan hartzen. Epaitu egiten ditut maiz.
Denbora ondo kudeatzea	Eskola-saioetako denbora bikain aprobetxatzen dut beti, lana garaiz amaitu dezagun. Gai naiz lana planifikatzeko eta epeak betetzeko.	Gehienetan, eskola-saioetako denbora aprobetxatzen dut, lana garaiz amaitu dezagun. Gai naiz lana planifikatzeko eta epeak betetzeko.	Denbora galtzen dut tarteka, eta jarduerak bukatzea kostatzen zait. Lana planifikatzeko eta epeak betetzeko zailtasuna dut.	Gehienetan denbora galtzen dut, eta jarduerak bukatzea kostatzen zait. Lana planifikatzeko eta epeak betetzeko zailtasuna dut.	Normalean denbora galtzen dut, eta zailtasunak izaten ditut jarduerak amaitzeko. Ez naiz gai lana planifikatzeko eta epeak betetzeko.
Ekimena izatea	Ekarpenak egiten ditut behin eta berriro, ideiak eman, proposamenak egin.... Lanerako prest agertzen naiz.	Taldeari ekarpenak egiten dizkiot, ideiak ematen ditut, proposamenak egiten ditut... Gehienetan lanerako prest egoten naiz.	Batzuetan taldeari ekarpenak egiten dizkiot, baina beste askotan kideen zain geratzen naiz, haiek egin ditzaten. Lanerako prest egoten naiz batzuetan.	Gehienetan, taldeko kideek zer proposatuko zain geratzen naiz, eta haiek egiten dute lan gehiena.	Jarrera pasiboa. Kideek esaten didate zer egin eta nola.
Laguntza ematea	Kideak laguntzeko prest agertzen naiz beti. Gogor saiatzen naiz kideek aurrera egin dezaten.	Gehienetan kideak laguntzeko prest agertzen naiz. Saiatzen naiz kideek aurrera egin dezaten.	Batzuetan kideak laguntzeko tartea hartzen dut. Gehienok aurrera egin dezagun arduratzen naiz.	Noiz edo noiz kideak laguntzen ditut edo zailtasunik izanez gero, laguntzen dut.	Ez ditut kideak aintzat hartzen. Nire lanaren ardura hartzen dut soilik.

9.2. Antzezpena neurtzeko errubrika

	BIKAIN	OSO ONDO	ONDO	NAHIKOA	ESKAS
TESTUA BARNERATZEA % 30 Irakurketa, ulermena, memoria, ahalegina.	Testua ulertu eta guztiz barneratu du. Testua ederto daki.	Testua oso ondo ulertu eta barneratu du. Testua oso ondo daki.	Testua ulertu eta ondo barneratu du. Batzuetan testua ahazten zaio.	Testua ulertu, eta, oro har, barneratu du. Testua askotan ahazten zaio.	Testua ez du prestatu. Hutsune ugari ditu.
AHOZKOTASUNA % 20 Ahoskera, tonua, intonazioa, abiadura, bolumena, ulermena.	Diskurtoaren tonua, ezin adierazkorragoa. Bikain ahoskatu du. Abiadura eta bolumen ezin egokiagoak. Adierazitakoa ederto ulertzen da.	Diskurtoaren tonua, oso ondo aukeratua. Oso ahoskera ona. Abiadura eta bolumen egokiak. Adierazitakoa oso ondo ulertzen da.	Diskurtoaren tonua, ondo aukeratua. Ahoskera nahiko ona. Abiadura eta bolumena, onargarriak. Adierazitakoa, oro har, ondo ulertzen da.	Diskurtoaren tonua, askotan ez dator guztiz bat esandakoarekin. Ahoskera, abiadura eta bolumena, hobetu beharrekoak. Adierazitakoa batzuetan ez da ulertzen.	Tonua eta diskurtoa ez datoz bat. Ahoskera eskasa. Abiadura eta bolumen desegokiak. Adierazitakoa ez da ulertzen.
GORPUTZ-ADIERAZPENA % 30 Karakterizazioa, ekintzak, helburua, naturaltasuna.	Gorputzaren adierazpenak eta diskurtoak guztiz bat egiten dute. Pertsonaien karakterizazioa, helburuak eta ekintzak, bikain aukeratuak. Antzeppen zeharo naturala eta sinesgarria.	Gorputzaren adierazpenak eta diskurtoak bat egiten dute. Pertsonaien karakterizazioa, helburuak eta ekintzak, oso ondo aukeratuak. Antzeppen oso naturala eta sinesgarria.	Gorputzaren adierazpenak eta diskurtoak gehienetan bat egiten dute. Pertsonaien karakterizazioa, helburuak eta ekintzak, ondo aukeratuak. Oro har, antzeppen naturala eta sinesgarria.	Gorputzaren adierazpenak eta diskurtoak gutxitan egiten dute bat. Pertsonaien karakterizazioa, helburuak eta ekintzak batzuetan ez daude argi. Antzeppen onargarria, ez erabat sinesgarria.	Gorputzaren adierazpenak eta diskurtoak ez dute bat egiten. Pertsonaien karakterizazioa, helburuak eta ekintzak ez daude batere argi. Antzeppen eskasa eta ez naturala.
TALDE-LANA % 20 Parte-hartzea, interakzioa, arazoan eta denboraren kudeaketa, errespetua.	Parte-hartze bikaina. Ederto koordinatzen da taldekideekin, eta laguntza handia ematen du. Une guztietan aprobetxatzen du denbora, arazoak bikain kudeatzen. Errespetu itzela erakusten du.	Oso parte-hartze ona. Oso ondo koordinatzen da taldekideekin, eta hainbatetan eskaintzen du laguntza. Denbora biziki ondo aprobetxatzen du, eta arazoak oso ondo kudeatzen. Errespetu handia erakusten du.	Parte-hartze ona. Ondo koordinatzen da taldekideekin, eta laguntza eskaintzen du. Denbora ondo aprobetxatzen du, eta arazoak egoki kudeatzen. Errespetua erakusten du.	Parte-hartze nahikoa. Batzuetan koordinatzen da taldekideekin, eta inoiz eskaintzen du laguntza. Ez du denbora behar bezala aprobetxatzen, ezta arazoak kudeatzen ere. Nolanahiko errespetua erakusten du.	Ez du ia parte hartzen. Ez da ikaskideekin koordinatzen, eta ez du laguntzarik ere ematen. Ez du denbora aprobetxatzen, eta ez da saiatzen arazoak kudeatzen. Errespetu gabeko jarrerak izaten ditu.

9.3. Mitoak, mundua azaltzeko era. Kontrol-orria.

	Bai	Erdizka	Ez
Antzinako hainbat mito klasiko ezagutzen ditut, zeinak egungo kulturaren parte diren.			
Gai naiz Persefone eta Demeterren mitoak urtaroeekin duen lotura ulertu eta azaltzeko.			
Mitoei buruzko informazio egokia aurkitu eta hautatu dut.			
Hautatutako informazioa ondo laburtu dut, ideia nagusiak bilduz.			
Edukia ondo dago antolatuta, eta esaldiak ulergarriak eta gramatikalki zuzenak dira.			

9.4. Autoebaluazioa. Koadro biziak.

Adierazi adostasun-maila, 1etik 5era.

Aukeratutako koadroari buruzko informazioa aurkitu eta barneratu dut.

1 2 3 4 5

Koadroko pertsonaiaren larruan sartu naiz, eta ondo karakterizatu dut, haren ezaugarri nagusiez ohartuz.

1 2 3 4 5

Pertsonaiari dagokion bakarrizketa mamitsua eta koherentea idatzi dut.

1 2 3 4 5

Bakarrizketaren euskara zuzena eta ulergarria da.

1 2 3 4 5

Bakarrizketa antzeztean, gorputz-jarrerak esandakoari lagundu dio, eta zerikusia izan du pertsonaiaren diskurtsoarekin.

1 2 3 4 5